



Aurkezten du :

Camille Saint-Saënsen Animalien Inauteria



GUIDA DIDAKTIKOA



Gran Teatre del Liceu
Servei Educatiu



Ikuskizuna

Fitxa teknikoa

Enrique Lanzek txotxongilo izugarri batzuk sortu ditu, "ametsarena beste logikarik ez duten ustekabeen sorta bat" izan nahi duen istorio baten protagonistak izan daitezten bertan "musika bera da argudio bakarra; esna egon arren, giro magiko batean amets eragingo digun ikuskizun bat."

✚ Musika

- Camille Saint-Saëns en *Animalien Inauteria*
- Claude Debussy en *Faunoaren bazkalondoari preludioa*

✚ Ikuskizunaren sortzailea eta eszena-zuzendaria

Enrique Lanz

✚ Koprodukzioa

Gran Teatre del Liceu / Compañía Etcétera

- | |
|---|
| <ul style="list-style-type: none">• Gutxi gorabeherako iraupena: 50 minutu• Gomendatutako adina: 3-11 urte |
|---|



Ikuskizunaren asmoak

Enrique Lanzek, ikuskizunaren sortzaile eta zuzendariak, berau atondu du bi frantses musikagileren lanak uztartuta:

- **Claude Debussy**en **Faunoaren bazkalondoari preludea**
- **Camille Saint-Saëns**en **Animalien Inauteria** (Fantasia zoologiko handia)



Faunoaren bazkalondoari preludearen musikak hasiera ematen dio ikuskizunari. Gidari edukiko dugun eta arretari eusten lagunduko digun pertsonaia da **Fauno**, trapuzko panpina bat, eta, egia esan, ez da izango bere kanpo edertasunak maiteminduko gaituena, baizik eta ordezkatzan duen emozio-balioak. Txikienek iluntzen duenean besarkatzen dituzten peluxe higatuzko hartz eta panpinen tankerakoa da, gutxi gorabehera... Fauno umeen talismana da.

Faunok faunoei zor die izena. Ikuskizun osoa Claude Debussyren musikaren berezko interpretazioa da, hau, berez, **Stéphane Mallarmé**ren poema baten interpretazio pertsonala (1842-1898) izan zen. Mitologiako faunoei bezalaxe, gure trapuzko panpinak txirula bat dauka. Harekin musika sortu egiten du, eta bakarrik haren ozentasuna ezagutzen du. Harriturik, Fauno ikusten joango da beste musika-tresna batzuk ere egon badaudela; entzuleei lagunduko die entzuten zein ikuskizunaren orkestra txikiaren tresnetan arreta jartzen. **Claude Debussy**en **Faunoaren bazkalondoari preludea**ren musika (1862-1918) bukatzeaz dagoenean, Fauno loak hartzen du eta amets egiten du. Berak, trapuzko panpina balizkoa izanik, benetako itxura zein tamainako animaliekin egingo du amets. Errealitatea eta fantasia nahasten dira. Umeen irudimen sinbolikoan gertatzen den bezala, ikuskizunean ere errealitateak fantasiaarako jauzia amets baten bidez gauzatu egingo da.

Faunok amets egingo du animaliek osatutako inauteri batekin. Bazter guztietan agertuko dira, orkestraren tresnen artean ezkutua..., Afrika, Asia, edota Australiatik etorriko dira; batzuk igerilariak izango dira, beste batzuk hegalaria, edota abereak... ; hainbat historiaurrekoak izango dira, batzuk animalia ikaragarriak eta bestetzuk ñimiñoak izango dira, azkarrak edo motelak ... **Camille Saint-Saëns**en **Fantasia zoologiko handia** indar osoz entzungo da, eta harrituko gaituzten elementuen bidez 13 animalia aurkeztuko dizkigu. Inauteriko desfilearen azken animalia, zisnea, izango da Fauno amets magikotik iratzarriko duena. Une horretan berriro egingo dute bat errealitateak eta fikzioak antzezpena esparru batetik bestera eraman dituzten estetika-, musika- eta ikuskizun-osagai guztiekin. Ikusmenari lotutako zehaztasunek, inauteriei zentzua ematen dieten berberek, jotzaileak eta animaliak moztutako dituzte, ikuskizuna animalien inauteri bat bihurtzeko.

Camille Saint-Saëns
Animalien Inauteria



Argazkiak



[Karadar Classical Music](#) helbidetik jaitsiak



Camille Saint-Saëns

Biografia

Camille Saint-Saëns (Paris 1835 - Aljer 1921)

Parisen jaio zen, 1835eko urriaren 9an. Bi urte zituela, izebarekin jolasten zen emakumeak pianoan jotzen zituen noten izenak asmatzen. Charlottenen arabera: *"Ematen du notek euren izena esaten diotela"*



Musikarako trebezia berezia zeukan umea zen, izan ere, hiru urte eta erdi zituela pianoarako melodia txikiak idazten zituen. Bere gaitasun ikaragarriaren ondorioz, sei urterekin Camille Stamaty piano-jole bikainak ikasle moduan onartu zuen.

Hamar urterekin lehen kontzertua ematera gonbidatu zuten. Pleyel Aretoan izan zen gertakizuna, garai hartako Parisko areto garrantzitsuenetariko bat.

Programa Mozarten Pianoarako kontzertu batek eta Beethovenen Orkestra eta pianoarako hirugarren kontzertuaren mugimendu batek osatzen zuten. Bere maisutasunak Parisko Kontserbatorioko ateak ireki zizkion, soilik hamahiru urte

bazituen ere. Bertan pianoa, organoa eta konposizioa ikasi zituen. Organoaren lehen saria hamasei urte zituela lortu zuen. Hogeita laurekin Parisko Madelaine elizako organo-jole ofiziala zen.

1867an izan zen Parisko Mundu-Erakusketa; gertaera honek Parisera mundu osoko pertsonak erakarri zituen. Garai honetan Camille gazteak *Les nocés de Prométhée* kantata plazaratu zuen; *Héctor Berlioz* eta *Franz Liszt* musikagileek miretsi zituzten organoan zein pianoan berak egindako interpretazioak. Bigarrenak esan zuen Camille mundu osoko organo-jole onena zela. Liszt esker, 1877an *Sanson eta Dalila* lana Weimarren aurkeztu ahal izan zuen, hiriko antzokietako zuzendariak kontra bazeuden ere, musikagile gazteen estreinaldiak gustuko ez zituztelako.

Beethovenen talentua agerrarazi beharko diezu inoiz ulertu ez dutenei, idatzi zion behin amak. Hark eraginda, zera erantzun zion: *Zeu zaitut ohore eta indar, kontzientzia eta atsedena*. Musikagile gisa, bere maisuen musikak neurri handian baldintzatu zuen Camille Saint-Saëns; horregatik kontserbadoretzat hartu zuten. Ez zuen inoiz abangoardista izan nahi izan.

1875ean Marie Truffotekin ezkondu zen. Musikariaren jarduera etengabeak eta, batez ere, bi seme-alaben galera goiztiarrak bikotearen bizitza lardaskatu zuten.

Alemaniar jatorrizko musika tradizioaren defendatzaile sutsua izan zen, alemaniar musika bere herrialdekoarekin lehiazera heldu zitekeela jakin arren. 1871n Frantses Musikaren Nazio Elkartearen sortu zuen, musika konposizioaren arloan talentu berriak sustatzeko eta musikari gazteen jendaurreko emanaldiak bultzatzeko asmoz. Horri esker, Camille hainbat musikari bikainen irakaslea izan zen, besteak beste, *Gabriel Fauré*rena.



Berandu aitortu zitzaion bere profesionaltasuna. Saint-Saënsen musika formaren aldetik akademizista eta perfekzionistatzat jo dute askok. Dieppe frantses hirian bere estatua inauguratu zenean, ironiaz Camillek zera esan zien bertaratuei: *"Dagoeneko soilik hildakoen estatuak inauguratzen direnez, neu ere hilda omen nago... Horregatik hobe dut isilik egotea."*

Saint-Saënsen mota guztietako musika idatzi zuen: ganbera-musika ez ezik, sinfoniak eta operak ere bai. Egun gehien jotzen diren bere lanak honakook dira: *Sanson eta Dalila* (1867an idatzitako opera); *Dantza makabroa, Op. 40.* (1874); *Sinfonia organoarekin* (1885-86) eta *Animalien inauteria* (1886).

1921ko abuztuaren 6an, kontzertu baten ondoren, jendaurrean jo zuen pianoa azken aldiz. Hilabete batzuk geroago, abenduaren 16an, Aljerren hil zen, 86 urte zituela.

Camille Saint-Saëns



Lanaren jatorria

■ Fantasia zoologiko baten sorrera: "Inauteria" ■

Animalien inauteria Austrian idatzi zuen, 1886ko hasieran. Lana konposatu zuen urte berean aurkeztu zuen, martxoaren 9an, Parisen, astearte-inautean; Camille Saint-Saëns gezurrezko sudur eta bizar batez mozorrotu zen. Apirilaren 2an berriro interpretatu zuen, bigarren aldiz, **Paulina Viardoten** etxean, **Franz Liszt** lagunak entzun ahal izan zezan.

Hasieratik bertatik Saint-Saënsen dibertimendutzat jo zuen, eta ez zuen inoiz utzi berriro interpretatzen, ezta publikoaren eskuragarri egon zedin ere. Musikagileak argi zeukan zati batzuk musika parodia hutsa zirela, bertan, era zorrotzean, garai hartako musikagile (*Dortokak* eta *y Fosilak*) zein musikari batzuei (*Piano-joleak*) barre egiten baitzien. Asmo hauek direla eta, Saint-Saënsen ez zuen baimendu, bera bizi izan zen bitartean, fantasia hau interpretatzea, ezta partitura argitaratzea ere.

Zisnearen zatia izan zen interpretatzea baimendu zuen bakarra. **Anna Pavlowa** dantzariak, biolontxeloaren melodia ederrarekin maiteminduta, zisnearen pertsonaiari bizitza eta mugimendua ematen zizkion dantza bat sortu egin zuen...

Egilea hil ondorengo lehen interpretazioak 1922ko otsailaren 25 eta 26an egin ziren. Ordudanik, harrigarria da ikustea fantasia zoologiko hau leku eta une askotan interpretatu dela eta haxe izan dela Camille Saint-Saënsi ospe gehien eman dion lana.



Entzuteko Gida

Entzun dezagun "Inauteria"

Camille Saint-Saënek **suite** izenekoa berreskuratu zuen lan honetan, hau musika era zaharra zen, izaera eta erritmo desberdinetako hainbat dantza bere baitan biltzen zituen. **Fantasia zoologiko handia** 14 konposizioko suite bat da, nolabaiteko originaltasuna ematen dioten hainbat osagai dauzkana:

- Dantzak animaliak sartuz ordeztu izana.
- Era askotako musika tresnen talde bat erabili izana:
 - o 2 piano, 2 biolin, biola 1, biolontxelo 1, kontrabaxu 1, zeharkako txirula 1, klarinete 1, xilofono 1 eta kristalezko harmonika 1 (metalezko xaflez egindako musika tresna txiki bat da, xaflek atzamarren presioaren bidez dar-dar egiten dute). Gaurko bertsioetan azken tresna honen ordez zeleta bat erabiltzen da.
 - o Musikagileak instrumentazio desberdin bana erabili zuen konposizio bakoitzean. Musika tresna guztiak batera soilik bukaerako zatian ariko dira.

Hainbat atal proposatzen ditugu, lanaren nondik norakoak aurkezteagatik, ondoren bere ahalmen didaktikoa ziurtasun handiagoarekin baliatu ahal izateko:

- Musika zatien azalpena
- Denbora banaketa
- Musika tresnak

Musika zatiak

1.- Sarrera eta lehoiaren errege-martxa (ikus partitura)

Bi pianoek, tremolo etengabe baten bidez, entzutera gonbidatzen gaituzte. Nota eskala azkar baten ondoren, tronpetarena ematen duen soinu batek (bi pianoek sortutakoa) **Animalien inauteria** hastera doala iragartzen digute.

Lehoiak garaipen-martxa batean baleude bezala mugitu egiten dira. Hari igurtziko bost tresnek, bi pianoekin batera, musika martxa baten moduan markatzen dute. Noizean behin, oihaneko erregeak bere atzapar zorrotzak erakusten dizkigu, orro beldurgarriak botatzen dituen bitartean. Zatiaren bukaeran berriro ere martxaren gaia agertzen zaigu, eta lehoi-taldeak bere azken orro izugarria oparitzen digu.

2.- Oiloak eta txitak (ikus partitura)

Oiloak jaira heltzen dira kakara-kakaraka. Pianoa eta biolinak bere mugimendu azkarraz arduratzen dira. Oiloak eta txitak imitatzeko efektua nota berbera soinu eten batekin errepikatuz lortzen da.

Klarineteak oilarrarena egiten du, eta desfilearen erdialdean agertzen zaigu nota bakan eta ozen batzuekin. Azken oiloa, lehen biolinaren ahotsarekin, urduri eta azkar, kakaraka ari da bukaeraraino. **Rameau** frantses musikagilearen **Oiloa** izeneko lanaren parodia bat da.

3.- Basastoak (asto basatiak) (ikus partitura)

Bi pianoek nota berberak –nahiz eta bien artean zortzidun bateko tarte egon- eta teklatu osoan zehar goranzko zein beheranzko hainbat eskala bukaezin jotzen dituzte, ematen du ez direla inoiz bukatuko. Musikagileak agindu die abiadura oso azkarrean (*presto furioso*) jotzeko, bi basasto elkarri segika ari direla iradokitzeko.

4.- Dortokak (ikus partitura)

Pianoak denbora aldaezina markatzen du, monotonia eta asperdura eragiten dituena. Akonpainamendu honekin, hariak -dortokek- **Jacques Offenbach** frantses musikagilearen **Orfeo infernuetan** lanaren Kankan melodiaren oso bertsio geldoa aurkezten dute batera. Opereta beraren beste melodia bat ere zati honen bigarren aldean agertuko da.

5.- Elefantea (ikus partitura)

Kontrabaxua, bere tamaina eta tesitura direla eta, elefantea ordezkatzear arduratzen da. Dotorezia handienarekin hirutar erritmoko baltse bat dantzatzen du (A gaia). Pianoaren akorde ozenek laguntzen diote.

Erdialdeko atala hamaseigarren konpasarekin hasten da. **Héctor Berlioz** frantses musikagilearen **Faustoren kondena** izeneko lanaren Silfoen baletean inspiratuta dago. Hasierako gaia berriro agertzen denean, pianoak gaiaren errepikapen bariatua egiten du, eta arpegio bihurriak eskaintzen ditu; musika arinagoa bilakatzen da. Musika forma zera da: **A B A'**.

6.- Kanguruak (ikus partitura)

Bi pianoek bi kanguru zalantzatirena egiten dute, han-hemenka saltoka eta noizean behin geldituz dabiltzanak. Musikagileak, bere musikaren elastikotasuna argi zeukanez, partitura *tempo* desberdinak adierazi ditu. Bariazio horiek erritmoa azkartuz (*accel.*) eta geldotuz (*rit.*) lortzen dira.

7.- Akuarioa (ikus partitura)

Hari-tresnen bota luzeek eta teklatuaren arpegio leunek zein nota zorrotzek itsaso zabal bateko ur baretara eramaten gaituzte (A gaia). Marrazki melodiko batek, behin bakoitzean gero eta beheagoa den tonuerdi batera eramanda, itsasoan murgilarazten gaitu (B gaia). Zatiaren bukaeran zelestak, partituran Camille Saint-Saënek agindu zuen kristalezko harmonika ordezkatu duen tresnak, eskaintzen dizkigu *glissando*ko akorde batzuk, itsas azalera ateratzen ari garelako sentsazioa eduki dezagun. Zatiak egitura hau dauka: A B A B A 'B'.

8.- Belarri luzeko pertsonaiak (ikus partitura)

Bi biolinek, joko bat izango balitz bezala txandakatuz, "hi-ha" bat igortzen dute. Animalien marrumak pixkanaka lasaitasun handiagoarekin igorriko dute.

9.- Baso sakoneko kukua (ikus partitura)

Pianoak basoko giro lasai eta barea deskribatzen digu. Bere sakontasun misteriozuztik klarinete bat agertuko da, aldizkako era lasaian kuku baten kantua entzuten ahalbidetuko diguna, horretarako bi notako motibo bat -hirudun maior bat- joko du konposizio osoan zehar.

10.- Hegalariak (Txoritegia) (ikus partitura)

Konposizio osoan zehar, hari igurtziko bost tresnek giro ozena sortzen dute, airearen zein txorien hegaleen mugimendua iradokitzen diguna: bi biolinek eta biolak nota beraren gainean dihardute; bitartean, biolontxeloak eta kontrabaxuak bi notako *pizzicato* bat jotzen dute. Zeharkako txirulak maisutasun handiko pasarteak igortzen ditu, txorien kantu alaiak imitatzeko. Bi pianoek ere parte hartzen dute, eta motibo melodikoetako oihartzun ozena ekartzen dute. Konposizio honetan forma klasikoa agertzen zaigu: A B A.

11.- Piano-joleak (ikus partitura)

Bere inauteri berezi honetan, frantses musikagileak piano-jole gisa aurkezten dizkigu digitagradu batzuk. Horrela, jotzen duten bakoitzean goiko tonuerdi batean modulatzeko dituzten eskalen digitalizazio-teknika errepikagarriak egunero egiteagatik bere burua pianoaren maisutzat daukatenak identifikatzen ditu. Bi piano-joleak modulazio horiek batera egiten saiatzen dira, baina elkarri jaramonik egin gabe. Eraitza entzuleentzako zigor akustiko hutsa da.

12.- Fosilak (ikus partitura)

Xilofonoak fosil baten hezurren talka imitatu nahi du, musikagileak berak sortutako **Dantza makabroa** poema sinfonikoaren parodia bat egiteko. Pianoak gai zorrotz hau errepikatzen du. Bi egitura txiki hauek berriro errepikatuko dira eta rondo bateko leloa bilakatuko dira (A gaia). B gaia kontrapuntu irakasleen satiratzat jotzen da, frantses abesti herrikoi sorta bati gaineratzen zaiolako (ezagunenak: *Ah!, vous dirai-je maman* eta *Au clair de la lune*). Akatsa bailitza, klarineteak Frantzia garai hartan ospetsuena zen italiar kabatinaren motibo bat sartzen du: *Una voce poco fa*, **Gioacchino Rossini**ren **Sevillako bizargina** operarena. Zatiaren egitura errepikapen bidezkoa da, rondo bat bezalakoa: A B A C A

13.- Zisnea (ikus partitura)

Melodia eder batek, biolontxeloak interpretatutakoak, zisne eder bat dantzan/igerian erakusten digu –nokturno baten moduan-. Bi pianoek mugimendu hauek bi interpretazio desberdinekin laguntzen dituzte. Lehenak ur gaineko zisnearen ibilera lasai deskribatzen du; bigarren pianoak bare-bare erortzen diren ur tantak iradokitzen dituzten akordeak igortzen ditu. Forma hau dauka: A B A' (koda).

14.- Bukaera (ikus partitura)

Hasten da lanaren hasiera gogora ekartzen, hainbat animaliarekin agerpenaren bidez. Melodia alaitu hau tresna talde osoak jotzen du. Ozenen antzematen diren animaliak honakook dira: basastoak -bere eskala azkarrak direla eta-, oiloak eta txitak –kakaraka arin eginez-, astoaren marrumak eta kanguruen jauziak.



Denbora banaketa

Zatia	Musika konposizioa	Gutxi gorabeherako iraupena
1	Sarrera eta lehoiaren errege-martxa	[1' 58"]
2	Oiloak eta txitak	[0' 52"]
3	Basastoak (Asto basatiak) [0' 38"]	
4	Dortokak	[1' 53"]
5	Elefantea	[1' 21"]
6	Kanguruak	[0' 50"]
7	Akuarioa	[2' 02"]
8	Belarri luzeko pertsonaiak	[0' 43"]
9	Baso sakoneko kukua	[2' 12"]
10	Hegalariak (Txoritegia)	[1' 09"]
11	Piano-joleak	[1' 24"]
12	Fosilak	[1' 25"]
13	Zisnea	[3' 03"]
14	Bukaera	[1' 52"]

Musika tresnak

Camille Saint-Saënsen **Fantasia zoologiko handia** 1886an konposatu zuen, honako osagai hauekin: 13 animalia, 12 musika tresna, 11 tresna-jole eta 14 musika konposizio txiki.

Musika tresnak honakook dira:

- Zeharkako txirula
- Piccoloa
- Klarinetea
- Zelesta (jatorrizko partituraren arabera **kristalezko harmonika**)
- Xilofonoa
- Pianoa (2)
- Biolina (2)
- Biola
- Biolontxelo
- Kontrabaxua

Zati bakoitzean musika tresnak zein pasarte garrantzitsuenak azpimarratzen ditugu:

➤ Sarrera eta lehoiaren errege-martxa

1 Pianoa 2 Pianoa 1 Biolina 2 Biolina Biola Biolontxelo Kontrabaxua

Azpimarratu nahi ditugu bi pianoen goranzko zein beheranzko eskala kromatikoak, lehoien orroak iradokitzen dizkigutelako, eta nota beraren gainean markatutako erritmoa, bi pianoek jotako zatiaren hasierakoa, tronpeten soinua imitatzen duelako.

➤ Oiloak eta txitak

1 Pianoa 2 Pianoa Klarinetea 1 Biolina 2 Biolina Biola

Pianoak eta biolinak, txandaka, oiloak eta txitak kakaraka ari direla imitatzen dituzte. Klarineteak oihu desberdin eta labur batean leher egiten du, oilategiko jaun eta jabe den oilarra irudikatzeko. Zatia oilo bakar baten larritasunarekin bukatzen da, lehen biolinak interpretatua.

➤ Basastoak (Asto basatiak)

1 Pianoa 2 Pianoa

Bi pianoek abiadura handian jotako goranzko zein beheranzko eskalen bidez elkarri jarraitzen dioten melodiak irudikatzen dituzte.

➤ Dortokak

Piano 1 Biolina1 Biolina 2 Biola Biolontxelo Kontrabaxua

Pianoak hasiera ematen die akonpainamendu-akorde bukaezin batzuei, hirukotxoaren erritmo monotono baten bidez. Hari eta arku-tresnek, batera, **Offenbach**en Kankan dantza jotzen dute. Interpretazioaren erritmo geldoak zaildu egiten du erritmoa zein den asmatzea, oso lan herrikoa izan arren.

➤ Elefantea

2 Piano Kontrabaxua

Kontrabaxuak azaltzen du elefantearen gaia, **Héctor Berlioz**en **Faustoren kondenaazio**aren Silfoen baletaren gaia. Musika esaldi bakoitzean interpretazioa aldatzen duen piano batek laguntzen dio, eta honek eragiten du elefantearen bilakaerak beste itxura bat edukitzea. A gaia jotzen den lehen aldian akordeak oso markatuak dira. Bigarren aldian gaiari ekitean, arpegio bihurri batzuk marrazten ditu, eta hauek melodiari emaitza "lirainago" bat ematen diote.

➤ Kanguruak

1 Pianoa 2 Pianoa

Bi pianoek interpretazioa txandakatzen dute, kanguru baten jauziak iradokitzeke. Tresnek akorde hauek interpretatzen dituzte abiadura etengabe aldatuz, hainbat *acelerando* eta *retardando* baliatuz.

➤ Akuarioa



1 Pianoa 2 Pianoa Txirula 1 Biolina 2 Biolina Biola Biolontxelo Beste batzuk: Zelesta

Inauteriko orkestrak ur munduaren baretasun lasaigarrian murgiltzen gaitu. Azpimarratu behar dugu orkestraren protagonismoa bereganatzen duen zelestaren esku-hartzea. Goranzko lau eskalek eragiten duten giro misteriotsuak ur azpiko munduan murgiltzera gonbidatzen gaitu.

➤ Belarri luzeko pertsonaiak

1 Biolina 2 Biolina

Bi biolinek astoarena egiten dute, gero eta indartsuago eta ozenago joaz. Nekeak zatiaren bukaeran ahulago arrantza egitea eragiten die.

➤ Baso sakoneko kukua

1 Pianoa 2 Pianoa Klarinetea

Klarineteak beheranzko hirudun maior bat jotzen du, kuku baten kantu zuhurra iradokitzeke. Pianoaren akordeek soinu monotono bat marrazten dute, udako arratsalde bero bat irudikatzearren.

➤ Hegalariak (Txoritegia)

1 Pianoa 2 Pianoa Txirula 1 Biolina 2 Biolina Biola Biolontxelo Kontrabaxua

Zeharkako txirulak bere erritmo eta melodia akrobatikoen bidez (musika testua fusakoa da eta melodiaren marrazkia, orokorrean, gradu konjuntukakoa da) txoritegi bateko soinu-paisaiara eramaten gaitu: kolore, tamaina eta txio askotako hegaztiak. Hari-tresnek hegal astinduen antzeko soinu-giroa sortzen dute; bi pianoek noizbehinka txioak eragiten dituzte, bigarren mailako hegaztiak balira bezala.

➤ Piano-joleak

1 Pianoa 2 Pianoa

Berrito ere bi pianoak dira zatiaren protagonistak, buru-belarri saiatzen direlako errepikapen bakoitzean tonuerdi gorago batean modulatu dituzten eskala monotonoak jotzen, koordinaziorik gabe eta ganora gutxirekin, gainera.

➤ Fosilak

1 Pianoa 2 Pianoa Klarineta 1 Biolina 2 Biolina Biola Biolontxelo Kontrabaxua Xilofonoa

Xilofonoak behin eta berrito interpretatzen duen eta pianoak eta orkestrak imitatzen duten gaiaren indarra eta hauskortasuna azpimarratu behar dira.

➤ Zisnea

1 Pianoa 2 Pianoa Biolontxelo

Biolontxeloak zisne baten dantza bihurri eta barea deskribatzen duen melodia ezin ederrago bat interpretatzen du. Bi pianoen akonpainamenduan argi eta garbi asmo bikoitz bat ikusten da: Lehenak akordeen bidez ur barneko mugimenduaren jarraikortasuna luzatzen du; bigarren pianoak bare-bare erortzen diren ur tantak iradokitzen dituzten akordeak igortzen ditu.

Jarduera Didaktikoak



Aurkezpena

Eskolan musika entzuten dugu gustuko dugulako dantzatzea, bere sekretu ezkutatuak aurkitzeagatik, giroak irudikatzeko, hunkipenak sorrarazteko, erritmoei akonpainamendua egiteko, bere musika testuak irakurtzeko, esperientziak partekatzeko, irudi iradokitzaileak sortzeko... Aurkezten ditugun jarduera didaktikoak eskolako musika hezkuntzaren baitan jasotzen diren arlo horiek guztiak errealitate bihurtzera bideratuta daude.

Animalien inauteria nahiko lan erraza da musika entzunaldietara ohituta dauden eta berauek gustuko dituzten belarrientzat. Bere abantaila da 14 konposizio laburretan zatituta dagoela (40 segundokoa motzena, 3'15 minutukoa luzeena), eta orotara 20 minutuak gainditzen ez dituela. Ikasleei entzunaldia saio desberdinetan eta segida txikietan aurkeztu ahal zaie. Aurkezpen bakoitza helburu zehatz eta desberdin batera bideratu daiteke, konposizio osoa entzun eta musika lan orokor bat egin ahal izan dezagun, gainera jarduera plastikoak eta hezkuntzaren arloari zuzenean lotutakoak ere. Eskolan musika zati bakar bat lantzen dugunean, curriculumaren arlo batean baino gehiagotan eragiten saiatzen gara, ahalik eta hezkuntza arlo gehienetan sakontzen saiatzen gara. Camille Saint-Saënsen zati bakoitzaren inguruko lan sakona egin nahi baldin badugu, komenigarria izango zaigu arlo bat baino gehiago kontuan hartzea; era "independentean" aurkezten ditugun jardueren ikuspegi orokorra eduki beharko dugu, behintzat 14 zatiek ematen dizkiguten aukeratariko baten bat bazterrean utzi nahi ez badugu.

ABAO txikiaren antzezpena adin tarte zabal batera bideratuta dago: 5-10 urte arteko ikasleak. Aurkezten diren baliabide didaktikoak hezkuntza mailari egokitu eta ñabartu behar zaizkio. Lanak jarduera desberdinetarako bidea ematen du; konposizioak berak bere idazkera, estiloa eta tresna-kolorearen bidez eskaintzen dituen beste.

Komenigarria da lanaren izaera deskribatzailea gehiegi ez erabiltzea; helburu daukagu musikaren aldetiko bere posibilitateetan sakontzea. Haur Hezkuntzako ikasleak "Inauterian" sartzeko era bizi eta hunkigarriagoa erabili behar da, baina hasiera eta erdiko zikloetako ikasleen kasuan lehentasuna emango zaie musika eduki deskribatzaileei.

Argi dago musika lan bat entzuten dugun lehen aldian berau ulertzeak eta aztertzeak hurrengoetan baino esfortzu handiagoa eskatzen digula. Gero eta hobeto ezagutzeak asebetetze handiagoa eragiten digu. "Inauterian" entzunaldia prestatuko dugu hezkuntzaren aldetik emaitza hobeak lortzen lagunduko diguten jarduera didaktikoen gauzapean selektibo baten bidez. Denboran zehar banatzeko aurkezten den proposamena, ikuskizuna ikusi aurreko eta ondorengo jarduerari dagokienez, gutxi gorabeherakoa da. Zenbat eta pertsonaiak eta berauek identifikatzen dituen musika hobeto ezagutu, hainbat eta handiagoa izango da ikasleen eta lanaren arteko konplizitatea.

Irakasleek lana aldeztu aurretik aztertzea ezinbestekoa da ulertzeko eta bideratzen zaien ikasgelen ezaugarrientzako egokiak diren baliabideak sortzen edota egokitzen laguntzeko.

Jarduera	Haur Hezkuntza		Lehen Hezkuntza	
	Joan baino lehen.	Joan eta gero	Joan baino lehen.	Joan eta gero
Goazen Antzokira!	•		•	
Hitzek musika gogorarazten digute	•		•	
Pertsonaiek euren istorioa kontatzen digute	•		•	
Asma ezazu nor naizen!	•		•	
<u>Camille Saint-Saëns (Paris 1835 - Aljer 1921)</u>				•
“Inauteriaren” musika marrazten dugu		•		•
Dantza egingo al dugu?	•		•	
Animalia bakoitzak bere musikarekin kontatzen diguna	•		•	
Musikak bere trazua marrazten digu		•		•
Musika hizkuntzaren osagaiak				•
Musika tresnak			•	
Mozorrotu gaitezen		•		•
Musika hizkuntzaren osagaiak				•
Istorioak kontatzen dizkiguten animaliak				•
“Inauteriarekin” antzerkia egiten dugu				•

“Inauteria” eta Orff orkestra

Camille Saint-Saëns

Animalien Inauteria

Goazen Antzokira!

Eskolatik kanpoko irteera bat ikasleei aurkeztean, saiatzen gara adierazten zergatik aukeratu dugun aipatu jarduera. Egin aurreko fasean, saiatzen gara jarduerak hezkuntzaren aldetik arrakasta eduki dezan egoki deritzegun ezagutzak irakasten.

Animalien inauteria ikuskizunari dagokionez, bertako eszena-zuzendari **Enrique Lanzek** asmoak geure egin behar ditugu, eta ez kontatu ikasleei aldez aurretiko eskola-azalpenetan zeintzuk diren ikuslea harritzeko eta mundu magiko batean murgilarazteko asmoz sortutako eszenografiako osagaiak. Horrela in situ hunkitu eta txunditzeko eskubidea errespetatuko diegu.

Animalien inauteria ikustera joatea prestatuko dugu suitearen musika zati desberdinak ulertzen lagunduko duten jarduerekin. Ikuskizunaren aurreko jarduerak musikak apainduko ditu, norberak sortutako irudimenezko pertsonaien bidez. Aurkezten diren jarduerak musika daukate ardatz:

- Hitzak ikastea melodiak gogoratzeko.
- Musikaren ezaugarrien arabera animalia batzuk asmatzea.
- Musika zati batzuk era askean dantzatzea.
- Ipuin moduan protagonistek aurkezten diguten narrazioa entzute.
- Ikusiko dituzten tresnak entzutez identifikatzea.

Ikuskizunaren ondoren, lan pedagogikoa **Enrique Lanzek** bere fantasia zoologikorako sortutako eta zuzendutako eszenaratzeak eskaintzen dizkigun iradokizun plastikoen bidez osatuko da.



Hitzek musika gogorarazten digute

Musika entzuteko helburu eta asebetetzeetariko bat da lortzea jakitea “nola egiten zuen” gogoratu nahi dugun entzundako zati hark. Batzuetan ikusten dugu badaudela ikasle batzuk, musika oroimen itzela daukatelako, eskaintzen diegun zehaztasun ñimiño batetik abiatuta iradoki diegun zatia zehatz-mehatz gogoratzeko gai direnak. Hala ere, gure ikasle gehienek ez daukate erraztasun hori, eta laguntza edota erreferentziak behar dituzte eskatzen diegun musika gogoratzen laguntzeko.

Animalien inauteriaren zatiak gogoratzeko eskaini diezaiekegun laguntzarik onena **hitza** da. Ume batek abestutako musika batek “nola egiten zuen” gogoratzeko esfortzua egiten duenean, baliabide ohikoena da entzutean buruz ikasi zituen hitzak gogoratzea.


Animalien inauteria lanak 14 zati ditu, gehienak laburrak. Bakoitzak modu desberdinean pertsonaia bat edota sententzio batzuk adierazten ditu. Dena gogoratzea oso zaila da (baita atarramentu handiko irakasle espezialista batentzat ere). Soilik hamahiru animalietatik zortziren hitzak ekartzen ditugu, suitearen zati guztiak abesgarriak ez baitira.

[Lehoia](#) [Oiloak](#) [Dortokak](#) [Elefantea](#) [Akuarioa](#) [Kukua](#) [Fosilak](#) [Zisnea](#)

Gure ikasleei musika zatiak aurkeztean, animalia protagonistek asmatutako hitzak irakatsiko dizkiegu. Testuek, haiexek sortuak, izaera deskribatzailea daukate. Behin melodia bere hitzekin landuta, eskatu diezaiekegu kanta-marmarrean errepika dezatela, saiatu daitezela barneratzen eta barnetik abesten.

Lehoiaren errege-martxa

Disfrazado voy al carnaval,
¡ Qué bien lo pasaré!
Soy rey de la selva,
mis dientes os impondrán la ley.



Marcha real del león

Allegro ma non troppo

El carnaval de los animales



Dis - fra - za - do voy al car - na - val, qué bien lo pa - sa - ré!



Soy rey de la sel - va, mis dien - tes os im - pon - drán la ley.

Oiloak eta txitak

No pondré más huevos hoy,
si no limpian donde estoy.
Coc, coc, coc...

Los polluelos del corral,
más felices vivirán.
Coc, coc, coc...



Gallinas y polluelos

Allegro animato

El carnaval de los animales



Dortokak

De París viene la danza,
el Can-can no cansa,
las tortugas bailan
lentamente, sin parar.



Tortugas

Andante maestoso

El carnaval de los animales



Elefantea

Feliz estoy con maravilloso disfraz
Del contrabajo, cuatro acordes
me acompañan este lento vals.



El elefante

Allegretto pomposo

El carnaval de los animales



Akuariora

Cristalinas aguas;
fondos siempre limpios.
Peces de colores
surcan el inmenso mar



Acuario

Andantino

El carnaval de los animales



Baso sakoneko kukua

Ave cantor,
cu-cu.
tu doble son
cu-cu.
inunda el bosque
con dulce canción.
cu-cu

Me acerco a tí,
cu-cu.
te vas de allí.
cu-cu.
Silencio haré
para poderte ver.
cu-cu.



Cuco en la profundidad del bosque

Andante

El carnaval de los animales

A - ve can - tor, cu - cu tu do - ble son, cu - cu
 Mea - cer - coa tí, cu - cu te vas dea - llí. cu - cu

i - nun - dael bos - que con dul - ce can - ción. cu - cu
 Si - len - cioha - ré, pa - ra po - der - te ver. cu - cu

Fosilak

Dinosaurio soy.
 Viejo fósil hoy.
 Si golpeas fuerte,
 yo sueño así.
 Dinosaurio soy.
 Viejo fósil hoy.
 Si golpeas fuerte,
 ¡me rompo así!.



Fósiles

Allegro ridicolo

El carnaval de los animales

Di - no - sau - rio soy. Vie - jo fó - sil hoy. Si gol - pe - as
 fuer - te, yo sue - noa - sí. Di - no - sau - rio soy. Vie - jo fó - sil
 hoy. Si gol - pe - as fue - te, me rom - poa - sí!

Zisnea

Esta mañana, mi dulce amor
ha sido herida por un cazador.
Nado sin rumbo, sin ilusión.
¿Quién podrá entender mi triste corazón?



El cisne

Adagio

El carnaval de los animales

Es - ta ma - ña - na mi dul - cea - mor,

ha si - do he - ri - da por un ca - za - dor.

Na - do sin rum - bo sin i - lu - sión,

quién po - drá en - ten - der mi tris - te co - ra - zón.

Pertsonaiek euren istorioa kontatzen digute

Entzunaldia istorio baten gisa aurkeztuko dugu:

- Txikienei modu bizi batez aurkeztuko diegu, musikatutako ipuin bat bailitzan. **Inauteriaren** pertsonai bakoitzaren zertzelada narratibo eta irudimentsuak eskainiko dizkiegu.
- Helduagoek musika izaera handiena daukaten zatiak entzungo dituzte.

Ustekabez beteriko kutxa batetik ateratako musika zati bakoitzari osagai ikusgarri bat erantsiko diogu, arretari eusten laguntzearen. Animaliak eta hauei dagokien musika agertu ahala, joango gara azaltzen zer dagoen kutxan. Behin erakutsita, osagai ikusgarri horiek toki jaso batean jarriko ditugu, errazago ikusteko eta, gerora, **Camille Saint-Saëns**en **Animalien Inauteriaren** pertsonaiekin lotzeko.



Saint-Saënsen musika deskribatzailearen interpretazio desberdinak badaude, gutxienez, maisu adina! **Enrique Lanzek Gran Teatre del Liceu**rako sortutako eta zuzendutako ikuskizunak oso ikuspegi berezia eskaintzen digu.

Beharrezkoa izango da musikan murgiltzea eta adimena zorroztea gure “ikasle publikoari” lana ulertaraztearekin batera hunkituko dituzten osagai motibatzaileak eskaintzeko.

Lehoiak / Olioak eta Txitak / Basastoak / Dortokak / Elefantea / Kanguruak / Akuarioa
Belarri luzeko pertsonaiak / Kukua / Hegalariak / Piano-joleak / Fossilak / Zisnea

► Sarrera eta lehoiaren errege-martxa

Osagai ikusgarriak

- Kartoi mehez egindako tronpeta.
- Gorputz-keinu oso argia lehoien orroak entzutean.

Zatia entzun bitarteko azalpen motibatzailea

Bi pianoek, tremolo indartsu batez, entzuteko prestatzen gaituzte. Noten eskala oso azkar baten ostean, tronpetena dirudien soinu batek –pianoek interpretatuak- iragartzen digu **Animalien Inauteria**ren ikuskizuna hastera doala.

Lehoiak garaipen-martxa baten dotoreziaz mugitzen dira (**Ikus partitura**). Bost hari eta arku-tresnek, batera, eta bi pianoek martxaren erritmoa markatzen dute. Noizean behin, euren atzapar zorrotzak erakusten dizkigute orro basatiak egiten dituzten bitartean. Azkena, indar handikoa izango da.

➤ Oiloak eta txitak

Osagai ikusgarria

- Plastikozko arrautza bat, jolasteko modukoa.

Azalpen motibatzailea

Oiloak jaira heltzen dira kakaraka; pianoak eta biolinak mugimendu azkar hau jotzeaz arduratzen dira (**Ikus partitura**). Oilarra, klarinete bakarti bat, nota gutxi bakar batzuen bidez agertzen zaigu; zatiaren erdialdean agertzen da. Une horretatik aurrera oilo bakar batek, lehen biolinak joak, azkar eta urduri egiten du karaka.

➤ Basastok (Asto basatiak)

Osagai ikusgarriak

- Lau errotulatazailer-estalki, esku bakoitzeko bina atzamarretan jarriko ditugunak, horien bidez korrika egiten duten eta elkarri jarraitzen dioten animaliak irudikatuko ditugu.

Azalpen motibatzailea

Tíbeteko animalia arraro batzuk dira, basatiak eta azkarrak, asto zein zaldien ezaugarri komunak dauzkatenak. Bi pianoek, zortzidun bateko distantzia daukaten nota berberak joaz, amaiera ez daukatela ematen duten goranzko zein beheranzko eskalen multzo bukaezina jotzen dute. Musikagileak agintzen die abiadura handiz (*presto furioso*) jotzeko, bi basastoren arteko lasterka edota jazarpen bat irudikatu nahi izango balu bezala.

➤ Dortoka

Osagai ikusgarria

- Bastoi bat, erabiltzen duen pertsonaren geldotasun adierazten duelako, baina, era berean, kankan dantzatzeko ere euskarri moduan erabiltzen delako.

Azalpen motibatzailea

Pianoak denbora aldaezin bat markatzen du, monotonia adierazten duena eta publikoa aspertzeko duena. Dortokek, hari eta arku-tresnek lagunduta, **Offenbach** musikagile frantsesarena kankan bat dantzatzen du (**Ikus partitura**). Dantza hau azkar jotzekoa bada ere –hankak arin-arin jaso eta jauzi egiten dute- dortokek euren gorpuzkerak ahalbidetzen dien abiaduran dantzatu egiten dute.

➤ Elefantea

Osagai ikusgarria

- Peluxezko elefante bat.

Azalpen motibatzailea



Berrito ere pianoa izango da desfilea elkartzen den pertsonaia deskribatuko diguna: elefantea. Dotorezia handiz konpas temarioko baltse bat dantzatzeko du (*Ikus partitura*). Begi bistakoa da kontrabaxua, bere tamaina eta tesitura direla eta, haren mugimenduez arduratuko dela.

Hamaseigarren konpasa bukatuta, bigarren musika esaldi bati ekiten zaio **Héctor Berlioz** musikagile frantsesaren **Faustoren kondena**zioaren **Silfoen baletan inspiratua**. Silfoak irudimenezko pertsonaiak dira, bihurrikaria dibertigarriak egiten dituztenak, eta dantza egitea pila gustatzen zaie. Hasierako gaia berriro agertzen denean, pianoak akonpainamendua aldatu egiten du, eta musikari arintasun handiagoa ematen dizkioten arpegiak jotzen ditu.

➤ **Kanguruak**

Osagai ikusgarria

- Metalezko malguki bat, bolaluma batena-edo (jauzi egin behar du).

Azalpen motibatzailea

Hemen bi pianoek han-hemenka korrika dabilten eta jauzi handi eta erritmatuak egiten dituzten bi kanguru irudikatzen dituzte (ikasle batzuen ustez, untxi edota erbien antza handiagoa daukate...). Musikagileak erabaki du bi kanguruak irudikatzen dituen musika *tempo*z beteta egotea, elastikoa biltzen. Denboraren aldaketa hauek hainbat *acelerando* (*accl.*) eta *retardando* (*rit.*) uztartuz lortzen ditu.

➤ **Akuarioa**

Osagai ikusgarria

- Zapi urdin bat, uraren mugimendua irudikatzen duena.

Azalpen motibatzailea

Hari eta arku-tresnen nota luzeek zein teklatuaren nota leun eta zorrotzek itsaso zabalean, bertako ur lasaieran murgiltzen gaituzte (*Ikus partitura*, A gaia). Marrazki melodiko batek, aldi bakoitzean tonuerdi baxuago batera eramanak (B gaia), itsasoaren sakonean murgiltzen gaitu. Zatiaren bukaeran, bibrafonoak igorritako musikak lagunduko digu ur azalera ateratzen.

➤ **Belari luzeko pertsonaiak**

Osagai ikusgarria

- Bi asto-belarri itsatsita daukan zinta bat.

Azalpen motibatzailea

Bi biolinek, txandaka, "**hi-ha**" gero eta azkarrago bat igortzen dute, bien arteko jolasa balitz bezala. Honela, Camille Saint-Saënek barre egin nahi zien hitz egiteagatik hitz egiten dutenei, elkarri entzuten ez diotenei.

➤ **Baso sakoneko kukuak**

Osagai ikusgarria

- Txirula bat

Azalpen motibatzailea

Pianoak basoko giro bare eta lasaian murgiltzen gaitu. Bertako geldotasun sakonetik eta inguru misteriotsutik klarinete baten soinua agertzen da, modu lasai eta etenean zuhaitzen artean ezkututako kuku baten kantua entzutea ahalbidetzen diguna.

➤ Hegalariak (Txoritegia)

Osagai ikusgarriak

- Tamaina desberdinetako paper-txoriak edota kolorezko lumak.

Azalpen motibatzailea

Hari eta arku-tresnek zati osoan zehar hegaztiek hegala astintzearekin eta airearen mugimenduekin identifikatzen dugun soinu-giro bat sortzen dute. Zeharkako txirulak txorien txio-txio alaiak maisutasun handiz erakusten dizkigu. Bi pianoek ere txio egiten dute ozen, bigarren maila batetik alaitasunera elkartu nahi izango luketen hegaztiak bailiran. Zati honen musika egiturari buruz lan bat zehaztuko da: soinu-planoen aniztasuna.

➤ Piano-joleak

Osagai ikusgarria

- Ttattar eder bat jantziko dugu lepoan.

Azalpen motibatzailea

Musikagile frantsesak inauteri-desfile berezi eta bitxi bat aurkeztu nahi digu, piano-joleekin parekatzen dituen hainbat "ugaztun digitigradok". Baina ez musika gozatuz jotzen dutenak, baizik eta barre egiteko aldi bakoitzean goiko tonuerdi batean modulaturatutako eskala errepikagarriak jotzeagatik bere burua pianoaren maisutzat daukatenei. Bi pianistak saiatzen dira modulazio horiek batera jotzen, baina elkarri egokitu gabe, honen ondorioz azken emaitza entzuleentzako benetako zigor akustiko bat izango da.

➤ Fosilak

Osagai ikusgarria

- Dinosauru-jostailu bat.

Azalpen motibatzailea

Xilofonoak aurkitutako fosil/eskeleto baten hezurren arteko talka irudikatu nahi du. Dinosauru bat izan liteke! Pianoak gai arin hori errepikatzen du. Egitura berriro joko da, bigarren aldiz, eta rondo baten leloa bilakatuko da ([Ikus partitura](#), A gaia).

B gaian frantses abesti herrikoi multzo bat agertzen da. Ezagunen artean *Ah, vous dirai-je maman* eta *Au clair de la lune*.

➤ Zisnea

Osagai ikusgarria

- Zetazko (edo antzeko) zapi txuri bat.

Azalpen motibatzailea

Melodia eder eta erromantiko batek, biolontxelo batek joak, zisne dotore baten ur gaineko dantza marrazten digu. Bi pianoek haren mugimenduei laguntzen diete interpretazio desberdin banarekin: lehenak zisneak ur gainean uzten duen uhara geldoa iradokitzen digu; bigarrenak hainbat akorde igortzen ditu, bare erortzen diren ur tanta argiak irudikarazten dizkigutenak.

➤ Bukaera

Martxa lirain eta alai bat da, orkestra osoak interpretatua. Gehien iradokitzen diren animaliak: basastoen eskala arinak, oiloen kakaren erritmoa, kanguruen jauziak eta astoaren arrantzak.



Asma ezazu nor naizen!

Ikasleek euren kabuz asma dezaketena ez diezaiegun aurrez esan. Utz diezaiegun elkarriketak entzun ostean eta euren susmoetatik abiatuta gure galderen erantzunak topatzen.

Askotan musika entzunaldiei holako esaldiekin ekiten diegu: "Orain kontrabaxu bat entzungo dugu", edota "Camille Saint-Saëns-ek musika hau konposatu zuen elefante bat irudikatzeko"... Gauzak aurkezteko estrategiak aldatu egun behar ditugu. Erantzun arrazoitu bat behar duten galderak edota azterketak bila ditzagun. Adibidez:



"Animalien Inauteria" entzun aurreko galderak



"Camille Saint-Saëns izeneko musikagile batek erabaki behar du zein musika tresnak irudika dezakeen asto bat, beti ere tresnaren soinu-ezaugarrien arabera"

Ikasleek tresnen marrazki/irudi sorta baten artean aukeratu beharko dute: xilofonoa, biolina, pianoa,... Ikasgelan sortutako eztabaida eta iritzi trukaketa norabide zehatz batera bideratzen denean, astoaren musika zatia entzunaraziko diegu ikus dezaten zein izan zen musikagileak hartutako erabakia.

"Tresna hauek dauzkatz: biolontxelo, kontrabaxua, zeharkako txirula..., eta bat aukeratu behar dut animalia hauek irudikatzeko: zisnea, kangurua, elefantea, txoria... Lagundu iezadazue bakoitza ondoen irudika dezakeen tresna erabakitzen."



Ikasle bakoitzak bere erabakia hartuko du, eta orri batean animalia eta tresnen arteko loturak idatziko ditu. Taldearen aurrean azaldu eta arrazoitu egingo dira. Honekin batera, musika zati desberdinak entzun ere egingo dituzte, eta bakoitzean musikagileak hartutako erabakia egiaztatuko dute.



"Hirunaka bilduta. Pentsa ezazue Inauterietan gu bezala mozorrotu nahiko lukeen animalia bat. Nola mozorrotuko litzateke?"

Camille Saint-Saëns-ek bere musikarekin 14 animalia mozorrotu zituen: lehoia errege; oiloak pankartadun manifestari; dortokak kankan-dantzari; elefante bat tutudun dantzari... Entzun nahi al duzue bere inauteri bikainaren zatiren bat?



"Animalien Inauteriaren" bigarren entzunaldiaren galderak

"Dortokek gehien gustatzen zaizkien tresnak galdu egin dituzte, gogoratzen al duzue zeintzuk ziren?"

"Musika tresna hauetariko zein ez zaio gustatzen lehoiari?"

Tresna desberdinak aurkeztuko dizkiegu: pianoa, biolina, kontrabaxua, xilofonoa,...
"Lehoiaren errege-martxan" entzuten ez duguna da gustatzen omen ez zaiona.



"Une honetan ez naiz gauza gogoratzeko zeintzuk ziren **"Oiloak eta txitak"** zatian entzundako musika tresnak. Lagundu iezadazue bi talde hauen artean aukeratzen: biolina/pianoa/klarinetea edota biolina/pianoa/zeharkako txirula.

"Gogoratzen al duzue zein animalia agertzen zen dortoka entzun ondoren?"



Nola egiten zuen elefantearen musikak?"



Camille Saint-Saëns (Paris 1835 - Aljer 1921)



Musikagileen bizitza eta lanak plazaratzeko arrazoia da horren bidez eskaintzen diren kultur ekarpenak. Ikasleei begira, saiatuko gara emango dizkiegun datuak, batzuetan funtsezkoak izan ez arren, berauen arreta pizteko gauza izan daitezen.

Musikagilearen argazki edota irudiak, bere biografiaren datu bitxiren bat, ipuin moduan kontatutako benetako gertakizun baten azalpena,... baliatu ditzakegu. Hemen Camille Saint-Saënsen biografiaren abiapuntu gisa erabili daitezkeen ideia batzuk proposatuko ditugu (Ikus: [Camille Saint-Saëns](#) musikagilea).

Beti ikasleek ezagutu ditzaketen galdera edota jokoetatik abiatuko gara:

— Eiffel dorrearen irudi bat aurkeztu, frantses iraultzaren lehen mendeurrena ospatzeko antolatu zen 1889ko Parisko Nazioarteko Azokarako eraikia.

Ba al dakizue non ikus dezakegun burdinaz egindako dorre handi hau?

Bada Parisen, Camille Saint-Saëns, musikagile frantsesa, musikaren maitale handia, txikitatik pianoarekin zaletu zena, bizi izan zen hiria... Dorrea, Eiffel izenekoa, **Animalien Inauteria** bere lanaren estreinaldia (1886) baino **hiru urte geroago** inauguratu zuten.



— **Animalien Inauteriaren "Fosilak"** zatian agertzen diren frantses abestietariko batzuk irakatsi: **Au clair de la lune - Ah! Je vous aime maman.**

- Inork ezagutzen al ditu abesti horiek?
- Irakatsiko lizkiguke?
- Badakizue zein hizkuntzatan abesten dituzten?
- Camille Saint-Saëns musikagileak ere abesten zituen; hainbeste gustatzen zitzaizkien ezen bere lan batean sartu zituela. Jakingo zenuke lanaren izena esaten?



— Arbelean musikagilearen bizitzari buruzko **zerbait idatzi frantsesez**; gero ozen irakurri. Saiatuko gara egilearengana hurbiltzen Camillek, Parisen (Frantzia) jaiotako ume hark, hitz egiten zuen hizkuntzarengatik jakin-minaren bidez.




Hizkuntza hau ezagutzen al duzue? Ba al dakizue hizkuntza horretan hitzen bat esaten?

Ikasgelako arbelean **urkatuaren jokoan** aritu, gure musikariaren zein bere lanaren izenak osatzen dituzten hizkien bila. Txikienei zera galdetu diezaiekegu: **Nola zuen izena?** Helduagoak badira, zera proposatu diezaiekegu: **"Musikagile baten izena eta bere lan baten titulua asmatu behar dituzue"**



Bukatzen dutenean, bere argazkia erakutsiko diegu. .



Ea asmatzen dituzuen entzungo dugun musikagilearen izen-deiturak.

_ a _ _ _ _ _ - S _ _ _ _

Nahi izanez gero, bilatu dezakezue musikagile baten izena eta bere lan baten titulua agertzen diren esaldia.

_ a _ _ _ _ _ i _ _ - S _ _ _ _
 _ _ m _ _ o _ _ _ _ r _ _ _ l
 _ _ o _ _ _ _ a _ _ _ .

Soluzioa: Camille Saint-Saënsen Animalien Inauteria konposatu zuen.



"Inauteriaren" musika marrazten dugu

Animalien Inauteriaren suitearen 14 zatien soinu-planoak, melodiak, eta izaera kontuan hartuta, proposatzen dugu espazioan lanaren zatiak marraztea, esku eta besoek era askean marraztutako trazuen bidez.

Gorputzaren mugimendua marra melodiko bati lotzen zaionean lan bat ulertzeko prozeduraren adierazpen aske eta atsegina bilakatzen da. Hasieran, agian, ez diote aurkituko zentzu gehiegi keinuaren eta melodiaren arteko harreman horri, baina irakaslearen keinuak imitatuz eta mugimenduaren kontzientzia pixkanaka hartuz, azkenean ikasleek musika/gorputz adierazpena/mugimendua erlazioaren esanahia ulertuko dute.



Melodiak marrazten ditugu



- "**Inauteriaren**" musika zati bat **entzun**, eta bere marrazki melodikoa bereganatu, burua, besoak,... pixka bat mugituz.
- Abestia elkarrekin **abestu**, eta grabazioa entzun gabe, espazioan gorputzarekin marraztu.
- Musika **berriro entzun**, eta norberari utzi bere gorputz adierazpena aurkitzen.
- Airean marraztutako trazu melodikoa formatu grafiko batera eraman: arbela, paperezko horma-irudi handi bat,... Marraztutakoaren ezaugarriei erreparatu, ea bananduta edota lotuta marraztu dituzten, pintzeladak luzeak edo motzak diren,...
- Kartoi mehe batean behin betiko trazua marraztu –behin ikasgelan/ikastaldean adostuta-, eta marraztutako animalia izena idatzita utzi.
- Saio desberdinetan, beste zati batzuetako marrazki melodikoak elkarrekin parekatu eta antzemandako desberdintasunak ahoz azaldu.
 - Sarrera eta lehoiaren errege-martxa
 - Dortokak
 - Elefantea
 - Akuarioa
 - Fosilak
 - Zisnea



Badakigu zeintzuk diren melodia eta animalia



- "Inauteriaren" animalia batzuk agertzen direneko zatien marrazki melodikoa erakusten duten hiruzpalau karto mehe erakutsi.
- Euren melodia eta espazioko mugimendu melodikoa gogoratu.
- Marmarrean abestu eta espazioan gorputz marrazkia irudikatu; bitartean beste taldekideak saiatuko dira asmatzen zein den antzeztan ari garen animalia (ikusten ari diren gorputz adierazpena lagungarri ona izango zaie).
- Grabatutako musikaren eta gorputz marrazki melodikoaren arteko erlazioa egiaztatu.



Soinu-planoak marrazten ditugu

- Entzumen bidezko ikaskuntza handitu, beste soinu plano bat identifikatuz, belarria ahots desberdinak entzuten ohitu dadin.
- Melodia baten musika akonpainamendua entzun eta ezagutu. Tresna desberdinen tinbreak lagundu diezagukete.
- Melodia jotzen duen tresna keinu batez imitatu, jotzen ari den musikaria bagina bezala, eta beste keinu desberdin batez akonpainamenduak egiten duen interpretazioa.
- Ikastaldea bitan banatu, eta egokitzen zaien keinuaren arabera, bakoitzak soinu-plano desberdin bat entzun eta imitatzen du.
- Akonpainamenduaren eta melodiaren trazuak espazioan marraztu. Gero bi koloreko formatu grafiko batean gauzatuko ditugu. Lehenik arbelean eta geroago karto mehe handi batean marraztuko dugu. Behin marraztuta, parekatu honako hauen arteko desberdintasunak antzemateko:
 - Elefantea
 - Baso sakoneko kukua
 - Hegalariak (Txoritegia)
 - Zisnea



Dantza egingo al dugu?

INAUTERIA

Dantza da musikaren berezko gorputz adierazpena. Entzuten dugun musika dantzatzea da eskolan pixkanaka gero eta gehiagotan jorratzen den gorpuz adierazpenaren moduetariko bat. Dantza egiteak barneratutako mugimendu-sekuentziak kanporatzea, erritmo-melodia fraseatzearen egokitzapen harmonikoa erakustea eta inguratzen gaituzten pertsonetikiko harremanak sustatzea ahalbidetzen digu.

Edozein musikak mugiarazi bagaitzake ere, batzuek dantzatzera era naturalago batez eramaten gaituzte. Camille Saint-Saënsen **Animalien Inauteriak** badauzka zati batzuk, ideia motibatzaile batetik abiatuz gero, espazioan zehar era askean mugitzen laguntzen digutenak; beste batzuk aurkituko ditugu geure kasa antzeztea ahalbidetuko digutenak, hitzik gabeko istorioak balira bezala.

Fantasia zoologiko handiaren hainbat zati dantzatzea edota antzeztea proposatzen dugu. Ez dugu buruan koreografia zehatzik; irakasle eta ikasleen sormenaren esku uzten dugu, beti ere ikasleen adina eta gorputz adierazpenaren mailako mugimendu-gaitasuna kontuan hartuta. Sustatu dezagun norberaren desinhibitzea mugimendu askeen gauzapearen bidez, banaka, binaka edota objektuen batek lagunduta... Musikaren izaerak mugimenduak, keinu-marrazkiak, aurpegi-adierazpenak,... eragingo ditu.



Dantzatzeko zatiak

- Elefantea
- Akuarioa
- Hegalariak
- Zisnea

Antzezteko zatiak

- Sarrera eta lehoiaren errege-martxa
- Oiloak eta txitak
- Basastoak
- Dortokak
- Kanguruak
- Belarri luzeko pertsonaiak
- Baso sakoneko kukua
- Piano-joleak
- Fosilak



Animalia bakoitzak bere musikarekin kontaktzen diguna

Ikasgelan musika zati bat entzun ostean zera galdetu dezakegu:

- **Zer kontaktzen digu entzun berri dugun musikak?** Ibiltzera, atsedena hartzera, jauzi egitera, haserretzera, pentsatzera,... bultzatu nahi gaitu.

Animalien Inauteria bezalako musika deskribatzaile bat, hain protagonista bereziak dituen musika bat entzun ondoren, zera galdetuko dugu:

- **Zer iradokitzen digu animaliaaren musika honek?** (adibidez, honako zatiok: akuarioa, kanguruak, lehoia,...)
- **Kanguruek, elkarrekin jolasteko gogo al dute, edo nekatuegi daude?**
- **Benetan jolastu nahi badute, zertan?** (jauzika, korrika, jauzi geldotan, jolas lasaietan...).
- **Pozik ala triste daude?** Pozik badaude, zergatik? Triste badaude, zer gertatzen zaie?

Taldeka galdera hauen inguruan hitz eginez eta eztabaidatuz, ikasleak ulertzen joango dira musikak badituela elkarren artean oso hurbil edo oso urrunak izan daitezkeen gogo-aldarte asko iradoki diezazkiguketen izaera eta indarra. Ikusten joan behar dira melodia berberak gogo-aldarte desberdinak sorrarazi, eragin eta komunikatu egiten dizkiela, guztiek arrazoi daukatela musika entzunaldi batek eragiten dizkien sentimenduak azaltzen dituztenean.



Musikak bere trazua marrazten digu

Ikasleei irakasleak asmatutako musika trazuak interpretatzeko aukera eskainiko diegu. Entzundako musikaren eta trazuaren arteko erlazioa aztertu ondoren, musika zatiari dagokion marrazki melodiko egokia aukeratu beharko dute.

Illo melodiko sinple hauek erabil daitezke geroago “**Inauteriaren**” musika zatiak identifikatzeko.



- Kartoi mehe handi batean edota arbelean **Animalien Inauteriaren** musika zatietariko baten hasiera idatziko dugu. Ikasleak ahotsez, eta irakaslearen laguntzarekin, marrazki melodikoa imitatzen saiatuko dira. Gero musika zatia entzungo dute eta linea melodikoaren zein beronen trazua identifikatuko dituzte.





Interpretatu eta asmatu

- Arbelean idatzi baina interpretatu ez diren hiru marrazki melodiko aipatu. Ozenki, saiatuko dira asmatzen bere baitan daukaten musika. Entzungo duten musika zatia arbeleko marrazkietariko batekin lotu.



Musika hizkuntzaren osagaiak

Asko dira Camille Saint-Saënsen partituraren zati bakoitzetik atera ditzakegun musika osagaiak, didaktikoki erabiltzearen. Bereziki aintzat hartuko ditugu melodia batzuk ezagutzen lagunduko digutenak. Eskolaurretik melodia txikiak aurkezteak ikasleei laguntzen die musika hizkuntzaren osagaiak bereizten. Nahiz eta noten izena ez jakin, musika hizkuntza bereganatuz doaz.

Animalien Inauteriaren zati guztietatik bakarrik ulergarrienak eta didaktikoenak aukeratu ditugu. Hainbat jolas parte hartzaile proposatzen ditugu hizkuntza era askotariko jarduera bilakatzeko. Landutako osagaiak honako arlo hauetan gauzatzen dira:

- o Gai erritmikoak
- o Irakurtzeko egokiak diren melodia batzuen hasierako zatiak
- *Tempo* eta izaera adierazleak
- o Goranzko zein beheranzko eskalen eta eskala kromatikoen bistaratzea eta entzuketa.
- o Musika formak

[|Lehoia](#) [|Oiloak y txitak](#) [Basastoak](#) [Dortokak](#) [Elefante](#) [Kanguruak](#) [Kukua](#)

►Sarrera eta lehoiaren errege-martxa

Lehen lau konpasen gai melodiko-erritmikoa grafikoki identifikatu. Notak irakurri.



Erritmotik abiatuta musika zatiak asmatu: partituratik abiatuta, talde txiki batek erritmo batzuk sortuko ditu, eta besteak asmatzen saiatuko dira.



Lehoiaren orroaren adierazpen grafikoa ikusi eta entzunaldian entzun. Goranzko zein beheranzko eskala kromatiko bat da, lehoiaren orroa ozentasun osoz marrazten duena. Gelan ere, piano edota teklatu elektroniko batean, entzun daiteke.

►Oiloak eta txitak

Oiloak kakaraka gogoraziko dizkien erritmo bat asmatu Jotako erritmoa identifikatzen saiatu eta arbelean idatzi. "Oiloak eta txitak" zatia entzun eta abestuz errepikatu. Erritmoa asmatu eta arbelean idatzi.

Erritmoa atera eta ikastaldeak asmatutako kantuarien eta Camille Saint-Saënsen asmatutakoaren arteko berdintasunak aztertu.



Lehen lau konpasen gai melodiko-erritmikoa grafikoki identifikatu eta begirada batez ezagutu.



►Basastoak

Zatia entzun eta espazioan bere marrazki melodikoa egin, gure aurrean irudimenezko trazu bat marraztuko balitz bezala. Arbelean marraztutakoa grafikoki azaldu. Pianoan batera jotako goranzko eta beheranzko eskala bat identifikatu, errepikapen bakoitzean abiadura azkartuz.

►Dortokak

Dortoken "Kankan" dantzaren gaiaren erritmoa irakurri eta buruz ikasi (Offenbachenetik aterata). Bere pultsazioa imitatu erritmoa eskuekin markatuz. Talde txikietan banatutako tresna desberdinekin kanon moduan interpretatu. Tinbre desberdinak igortzen dituzten hainbat gorputz ataletan txaloak joz ere egin daiteke.



Lehen lau konpasen gai melodiko-erritmikoa irakurri. Dortokek dantzatzen duten *tempo*a entzun eta Kankan dantzatzen den jatorrizko abiadurarekin. *Tempo* eta izaerari izenak ipini, interpretazio bakoitzaren abiadurarekin bat datozenak. Adibidez: *Adagio handinahia*. Existitzen ez diren izenak asmatzera animatu: *Presto tortugués*, *Lasterka mantsoa*, *Tortugatto allegro*...



►Elefantea


A gaia entzun partitura jarraitu bitartean.



Obstinatu erritmiko bat asmatu eskuak eta oinak trukatzuz jotzeko, elefante baten ibilera imitatzeko. Musika gaia berriro entzun, obstinatuak laguntzen digun bitartean. Entzundakoa ez den melodia bat entzun bezain laster obstinatuaren akonpainamendua geldituko dugu. Hasierako gai (A) berriro agertutakoan, berriro egingo da.

Argi dago musika egokia dela elefantea “zabuka” ibiltzen irudikatzeko -erritmo hirutarrekoa da- eta baltse bat dantzatu dezagun.

Erritmo hirutarreko lehen lau edo zortzi konpas irakurri.



►Kanguruak

Zati honen esanguratsuen kanguruek egindako jauziak dira, hainbat *accelerando* (*accel*) eta *ritardando* (*rit*) izenekoek lagunduta, horien bidez animalien mugimenduaren abiadura etengabe aldatzen delako. Taldea animatu tempoaren aldaketa horiek eragiten dizkieten sentsazioak ahoz azaltzera eta irudikatu zer gertatuko litzatekeen joko ez balira.

► Baso sakoneko kukua

Zenbatu dezakegu zenbat aldiz igortzen duen klarineteak, -kukuak-, bere kantua. Ikasleek pultsazioa ez galtzeko trebetasuna bereganatuta badaukate, partiturak dituen pultsazioak adina puntu daukan orri marratu bat eman ahal zaie (puntuak zenbatuta egongo dira ondorengo zuzenketa erraztearren).

Ikasle bakoitzak ikur bat jarriko du kukuak abesten duen leku zehatza adierazteko. Jarduera hau, daukan zailtasuna dela eta, motibagarria izan daiteke, baina ikasleek egiteko gaitasunik ez badute, zapuzgarria izan daiteke (komenigarria da partiturako kukuaren kantuari buruzko “argibideak” ematea).

Musika tresnak

Camile Saint-Saënsen **Animalien Inauteria** beti agertu da eskola testu liburuetan, baita musika entzunaldiak lantzeko baliabide didaktiko gisa ere. Bere dibertimendu laburrek musika tresna batzuk identifikatzen laguntzen dute. Hemen, bere tinbre ozentasuna eta aberastasuna direla eta, gehien entzundako zatiak azpimarratuko ditugu



Basastoak
(Tibetar astoak)



Biolina



Zisnea



Biolontxelo



Elefante



Kontrabaxua



Hegalariai



Zeharkako txirula

Fantasia zoologikoak 14 zati ditu, guztietan osagai didaktiko interesgarriak daude, tresnak identifikatzeko estrategiak eman diezazkigukete. Atal honetan esanguratsuenak aipatuko ditugunak, hots, entzunaldi baterako egokiak direnak.

[|Lehoia](#) [|Oiloak eta txitak](#) [|Dortokak](#) [|Elefantea](#) [|Akuarioa](#) [|Belarri luzeko pertsonaiak](#)
[|Kukua](#) [|Hegalaria](#) [|Piano-joleak](#) [|Fosilak](#) [|Zisnea](#)

Ikasleen “musika belarriaren” heziketan eragin dezaketen hainbat jolas edota behaketa proposatzen ditugu.

►Sarrera eta lehoiaren errege martxa

[Piano 1](#) [Piano 2](#) [Biolina 1](#) [Biolina 2](#) [Biola](#) [Biolontxelo](#) [Kontrabaxua](#)

[Asma dezagun lehoiaren eta inauteriaren musika giro bat](#)

Behin zatia entzunda eta eduki deskribatzailea identifikatuta, proposamena da geure musika ekoizpena egitea, ikastaldearen elkarlan sortzailea, ahots-efektuak eta tresna batzuk erabiliz.

Beharrezkoa da lortu nahi ditugun musika asmoekin bat etorriko den ozentasuna lortzea. Ezinbestekoa izango da taldekideen arteko konplizitatea eta elkarlana sustatzea, tinbre ozenak aurkitzearen. Hasierako fasean gure asmo zein helburuak definitu behar ditugu, ekoizpena gauzatu ahala alda daitekeen eskema/marrazki baten bidez.

Adibidez:

- “Inauteriaren” hasierako tremoloa lurrean edota danbolinetan zotzekin joaz edota panderoak atzamarkatuz lortu dezakegu.
- Pianoen abisua, tronpetarena eginez, ahots ozenez imitatu daiteke. Lehoien etorreraren berri ematen diguten *ta-ra-ri* horiek kukurutxo baten bidez amplifikatuko ditugu.
- Bi pianoen goranzko zein beheranzko eskala kromatikoak, lehoien orroak irudikatzen dizkigutenak, Orff tresnetan (xilofonoak, metalofonoak,...) *glisandoak* eraginez.
- Lehoien paseoa txirula batek obstinatu moduan jotako hiruzpalau noten soinuaren bidez irudikatu daiteke.
- Inauteriaren ohiko musika jar daiteke, adibidez, brasildar sanba bat, eta bere erritmo dantzagarriak eraman gaitzala utzi.

►Oiloak eta txitak

[Piano 1](#) [Piano 2](#) [Klarineta](#) [Biolina 1](#) [Biolina 2](#) [Biola](#)

[Bilatu dezagun oilategiko oilarra](#)

Oiloak kakaraka ari dira, oilarrek abesten dute eta txitek txio-txio egiten dute. Soinu bakoitzaren semantika desberdintzen saiatuko gara soinu bakoitza joaz.

Batera, ikastaldeak hegazti hauen soinu tipikoenak imitatuko ditu. Txandaka, zotz eginez bizpahiru ikasle aukeratuko ditugu, bata oiloarena egingo du, beste batek oilarrarena, eta hirugarrenak txitarena. Bitartean beste ikaskideak begiak itxita egongo dira, eta aukeratutakoek klaseko leku desberdinetatik euren soinuak igorriko dituzte.

Soinua ezagutu eta kokatu dutelako frogara gisa, eskatuko diegu adieraz diezagutela, adibidez, eskuineko eskuarekin non zegoen oiloa, hatz erakuslearekin non zegoen oilarra eta erpuarekin non zegoen txita.



►Dortokak

Piano 1 Biolina 1 Biolina 2 Biola Biolontxelo Kontrabaxua

Nola igurzten dira biolin baten hariak?

Zati honetan hari eta arku tresna guztiek batera jotzen dute. Helburua da hari eta arku tresnen familia ezagutzea, eta fisika eta soinu mailako desberdintasunak antzematea.

Ondo legoke haietariko baten bat edukitzea, ikasleei erakustearren. Horrela, zuzenean, forma, tamaina, tresnaren zati desberdinak ikusi litzakete; osagai esanguratsuenen izenak ikasi; arkuari eta beronen egiturari erreparatu,... Beste baliabide batzuk erabili: horma-irudiak, multimedia materialak, bideo bat edo beste ikusi,... honek guztiak tresnen familia honetaz hitz egiteko motibazioa areagotuko du.

Keinuen bidez, arkuak hariak igurzteko mugimendua imitatuko dugu: entzungo dugun nota desberdin bakoitzarekin arkuaren norabidea aldatu egingo dugu: gorantz, beherantz,... Musika jarriko diegu, eta arkuaren mugimendua entzuten dituzten nota ezin geldoagoen bidez jarraitzen saiatuko gara. Ariketa hau Kankan abestia abiadura desberdinetan abestuz ere egin daiteke.

►Elefantea

Piano 2 Kontrabaxua

Badakizuen zenbat pisatzen duen elefante batek? Eta kontrabaxu batek?

Kontrabaxua da zati honen protagonista. Gutxitan hemen bezain ozenki entzun dezakegu. Pisua, altuera, zabalera eta antzekoen inguruko galderak eta konparazioak eginez arku eta hari familiako tresna baxuenera hurbilduko gara.

	Elefante	Kontrabaxua
Altuera	3,50 cm	1, 80 cm
Pisua	7.000 kg	10 kg

Bideo bat ikus dezakegu kontrabaxuaren itxura eta neurriak aztertzeko. Ikasle batzuentzat zaila da tresnaren benetako altuera asmatzen, baina errazago egingo dute erreferentziatzat euren altuera hartzen badute. Interesgarria da, matematika ariketa gisa, gainera, arbelean edota kartel batean grafiko edo diagrama batzuk egitea honako datu hauek jasotzeko: elefante baten, kontrabaxu baten eta euren altuera eta pisua.

► Akuarioa

Piano 1 Piano 2 Flauta Biolina 1 Biolina 2 Biola Biolontxelo Zelesta

Soinuaren norabidea

Zelesta da “Inauteriaren” zati honen itsas paisaia ozena entzutean entzuleen arreta gehien bereganatzen duen tresna. Tresna entzutean asma dezakegu zein izango den musikariaren besoaren norabidea: gorantz ala beherantz?

Ikasle batek zelesta nola jotzen den imitatu dezake xafla-tresna bat erabiliz (kariloi bat, adibidez), beste kideak bitartean saiatuko dira asmatzen igorritako soinua jaitsi ala igo egin den, eta zenbat aldiz egin duen.

► Belarri luzeko pertsonaiak

Biolina 1 Biolina 2

Imita dezagun animalien soinua

Zaila da asmatzen bi biolinak direla zati hau jotzen dutenak: bata jotzen ari denean, besteak gaina hartzen dio. Argi geratzen da biolin bakar batek astoaren arrantzak egiten dituela. Zati honen entzunaldiak ikusleen interesa pizten du.

Beste animalia batzuek egiten dituzten soinuak imitatuko ditugu, eta aldatzen saiatuko gara:

- animaliaaren soinua imitatu, oso urrun/ urrun/ hurbil balego bezala.
- animaliaaren soinua imitatu, kumea/ ar gaztea/ eme heldua/ gaixoa balitz bezala.

► Baso sakoneko kukua

Piano 1 Piano 2 Klarinetea

Zenbatu dezagun kukuaren kantua

Klarinetea da kukuaren kantuaren protagonista. Zaila da ikasleek asmatzea. Elementu grafiko edota ikusgarriak erakutsiko dizkiegu klarinetearen ezaugarri fisikoekin ohitu daitezen, eta bere soinuaren ezaugarriak aipatuko ditugu.

Txori baten kantua lortzearen egileak erabili zitzakeen beste tresna batzuei buruzko iritziak emango ditugu.

Ikasleei proposatuko diegu zenbatzea zenbat aldiz agertzen den kukuaren kantua; euren adinaren arabera zati txiki bat edo osorik entzungo dugu.

► Hegalariak

Piano 1 Piano 2 Flauta Biolina 1 Biolina 2 Biola Biolontxelo Kontrabaxua

Badakit zeharkako txirula jotzen

Zeharkako txirulak bere akrobazia erritmiko eta melodikoekin, (musika irudiak fusak dira, eta marrazki melodikoa gradu elkartuetan idatzita dago) txoritegi bateko kantuetara eramaten gaitu: kolore askotako hegaztiak, tamaina eta txio desberdinetakoak. Arku eta hari tresnek hegala astintzeko soinu giroa sortzen dute eta bi pianoek txio zorrotzak tartekatzen dituzte.

Zeharkako txirula baten irudiak ikusi eta komentatu nola sortzen den soinua. Aho-piezak irudikatzen dituzten gauzak bilatu –tamaina desberdinetako botilak, bolalumen estalkiak... eta horiekin soinuak sortzen saiatu.

Txistu egin eta txorien kantua imitatu.

► Piano-joleak

Piano 1 Piano 2

Badakizu DO nota piano batean aurkitzen?

Berrir bi pianoak dira zatiaren protagonistak, interpretazio bakoitzean tonuerdi zorrotzago bat modulatzeko duten eskala ariketen bidez.

Do notaren kokapena teklaturan adierazi, nota beltzetatik abiatuta. Behin identifikatuta, ohartarazi nola errepikatzen do pianoaren teklaturan zehar. Animatu ditzakegu ukimenaren bidez eta begiak itxita do nota ezagutzen jokatzerako.

► Fosilak

Piano 1 Piano 2 Klarineta Biolina 1 Biolina 2 Biola Biolontxelo Kontrabaxua Xilofonoa

Zotzak soinu desberdinak eragiten ditu

Xilofonoak behin eta berriro jotzen duen gaiak perkusio tresnei buruz hitz egitera eramango gaitu. Perkusio tresna bat feltro, egur edota plastikozko zotz batez jotzen badugu... sortutako soinuak desberdinak izango dira. Xilofono edota metalofono baten xafak material desberdineko zotz bakoitzarekin jotzeak sortzen duen soinuaz hitz egingo dugu. Joko bat antolatu daiteke perkusioan erabiliko materialen ordena asmatzeko.

► Zisnea

Piano 1 Piano 2 Biolontxeloak

Zenbat eta luzeagoa/motzagoa izan hari bat, gero etaagoa izango da soinua?

Biolontxeloak melodia ezin ederragoa adierazten du, zisne baten dantza bihurri, geldo eta barea irudikatu nahi duena.

Zati honetan biolontxeloaz hitz egingo dugu: bere forma, tamaina, hariak, arkua, soinua,... Aurreko zatietan aipatu dugu erlazioak azpimarratu behar ditugula: haria/soinuaren luzera, soinuaren haria/tinbrearen tentsioa,... Ikastaldearekin holakoak komentatuko ditugu, eta galdera bakoitzaren ostean esandakoa frogatzen saiatuko gara.



Mozorrotu gaitezen!



Animalien inauteriak benetako pertsonaiak gezurrezko istorio irudimentsu batean eta urtaro desinhibituenean irudikatzea ahalbidetzen digu: inauteria.

Gure ikastegietako neska-mutirik inauteri hitzak ikasturteko bigarren hiruhilabetera eramaten ditu; maskarak eginez, mozorrotuz, jarduerak dakartzaten alaitasunean eta zaratan parte hartuz,... jostatzen direneko astea. Animalia talde batek, gure fantasia zoologikoaren gure protagonistek bezala, euren inauteria ospatzen badute, ziurrenik oso ondo pasako dute.

Ikusmen eta plastika heziketaren lanak inauteriaren osagaien ingurukoak izango dira. Honi buruzko bibliografia zabala dago, maskarak, paperezko figurak, makillajea,... lantzen lagundu diezagukena.




Maskarak


Ezin da irudikatu maskararik gabeko inauteri bat. Gure ikasle gehienek ondo pasatzen dute maskarak jarrita; besteak harritzea gustatzen zaie eta dibertitzen dira inork ezagutuko ez dituela pentsatuz.

Maskara bat jartzeak nortasuna aldatzea dakar; ezkutatzea, gauza pentsaezinak esatea eta egitea ahalbidetzen du.

Jarduerari ekin dakioke paperezko poltsekin edota kartoi meheekin egindako maskara edota mozorro bat jarrita,... Lana ehundura eta kolore desberdin askotako materialekin egin daiteke: ezkoak, margoak, itsasgarriak,... Diseinu desberdinak sortzea proposatu ahal zaie: benetako edo gezurrezko animaliak, betaurreko apainduak,...



Paperezko figurak



Tolestea, itsastea, papera moztea... eskola giroko ohiko ekintzak dira. Pedagogia eta hezkuntzaren aldetik dauzkaten balioak ezagunak eta beharrezkoak dira hezkuntza jardueran: espazioko orientazioa, lateralitatea, trazuaren segurtasuna, ikusmenaren eta mugimenduaren arteko koordinazioa, geometria kontzeptuak, simetriak,... teknika desberdinak erabiliz, berezko sormena bultzatzen dugu...

Hau egiteko nahikoa da behar den materiala prestatzea, argi edukitzea zer egin nahi dugun, teknika ezagutzea eta adin bakoitzerako prozedura didaktiko egokiak aurkitzea...



Teknika hauen bidez egindako animaliekin albumetako azalak, gabonetako edota urtebetetzeetako postalak dekoratu daitezke, mugikarietan, eskulanen erakusketetan sar daitezke,... Aurkezten duten zailtasun maila berauek egiteak dakarren asebetetzearen parekoa da.

Tolestutako paperarekin erabiltzen diren tekniken artean **origami** izenekoak azpimarratu behar da, hau japoniar arte tradizional mota bat da, karratu baten formatik abiatuta kolorezko paperak tolestean datzana.



Makillajea

Aurpegi bat dekoratzen eta pintatzen badugu, maskara bihurtzen badugu. Mundu osoko kultur desberdinek historian zehar metodo hau erabili dute: Ipar Amerikako indioek aurpegietan marrazki ederrak egiten zituzten; gaur egun ere Afrikan, Amazonian, Indonesian,... tatuajeak eta gorputz pinturak balio antropologiko handiko ohitura askoren osagaiak dira.

Makillajearen bidez aurpegia aldatzea nortasuna ezkutatzeko, itxura aldatzeko eta sentitzeko modu bat da. Gure ikasle gehienek, batik bat txikienean, pintatzen ditugunean ondo pasatzen dute, teknika horrek emozioak kanporatzen, beste "ego" ezkutatu batzuk askatzen, buru geografia ezezagunak partekatzen... laguntzen dielako.



Inauteri baterako hitzak asmatzen

Beste proposamen bat , ikastaldearentzako oso motibatzailea, da, behin melodiak ezagututa, hitz berriak sortzea. Proposatutako diezaiekegu hitz guztiak edo soilik zati batekoak asmatzea, edo proposatzen diegun zatia osatzea. Ariketa honek landutako musika zatia hobeto gogoratzen lagunduko die.

Elefantea

- Feliz estoy con maravilloso disfraz
Del contrabajo, cuatro acordes
acompañan este lento vals.



Fosilak

- Dinosaurio soy.
Viejo fósil hoy.
Si golpeas fuerte,
yo sueño así.

Dinosaurio soy.
Viejo fósil hoy.
Si golpeas fuerte,
¡me rompo así!



Lehoia

- Disfrazado voy al Carnaval
¡Qué bien lo pasaré!
Soy rey de la selva,
mis dientes os impondrán la ley



Dortokak

- De París viene la danza,
el Can-can no cansa.
Las tortugas bailan
lentamente, sin parar.



Istorioak kontatzen dizkiguten animaliak



Esopo, (Aesopus) askatasuna lortzeko zoria eduki zuten esklabo greko apurretariko bat izan zen, bere jabea Janto izeneko filosofo bat zen. K.a. VI. mendean bizi izan zen, Grezian. Mundu osoan “alegien sortzaile/asmatzaile” gisa ezagutzen dugu, kontatzen zituen istorioak inoiz idatzi ez bazituen ere. Hil eta hiru mendetara, Demetriok oraindik gogoratzen ziren Esoporen alegiak ahozko tradizioetik jaso eta idatzi egin zituen. XVI. mendean, Esopo bizi izan zenetik hogeï mende geroago, Planudo beneditar monjeak bere bizitza kontatu zuen. Dirudienez, totela, konkorduna eta oso itsusia zen. Bere alegiek hiritar batzuk haserrarazi zituzten, eta norbaitek leporatu zion Delfoseko tenpluko urrezko kopa bat lapurtu izana, horrexegatik Hiampa harkaitzetik bota egin zuten.

Alegia literatur narrazio mota bat da, hasieran bertsoan egiten zena, eta pertsonaiak animaliak dira, giza bertuteak eta akatsak irudikatzen dituztenak. Oso istorio motzak ziren eta, gehienetan, irakaspen praktiko batekin edota ikasbide batekin bukatu ohi ziren.

XVII. mendean, Jean de La Fontaine izeneko frantses batek (1621 - 1695) alegien hainbat liburu idatzi zituen. Horrela arrakasta handia lortu zuen Europa osoan.

Tomas de Iriarte (1750 - 1791) eta Felix Maria de Samaniego (1745 - 1801) alegiak idazten arrakasta eduki zuten bi espainiar izan ziren.

Gordetzen diren Esoporen alegia askotariko batzuk irakur daitezke, bereziki Saint-Saënsen bere fantasia zoologikoan erabili zituen animaliak agertzen direnekoak.

Adibidez:

- [Lehoirik ikusita ez zeukan azeria](#)
- [Lehoi errege ona](#)
- [Lehoia eta astoa](#)
- [Oilarrak eta eperra](#)
- [Antzaratzat hartu zuten zisnea](#)

Ikastaldeari proposatuko diogu alegiak asmatzea animalien ahotan eskolako leku desberdinetan egiten ditugun jarduerak ipiniz. Motzak eta dibertigarriak izan beharko dira, ironia pittin batekin eta bukaeran “ikasbide” bat eduki beharko dute.

[Lehoirik ikusita ez zeukan azeria](#)

Bazegoen azeri bat, lehoirik ikusi gabea.

Egun batean patuak piztien erregearen aurrean jarri zuen. Eta holako bat ikusten zuen lehen aldia zenez, beldur ikaragarria sentitu eta ahalik eta azkarren alde egin zuen.

Lehoia bigarren aldiz ikusi zuenean, oraindik ere beldur zen, baina aurrekoan baino gutxiago, eta tarte batez patxadaz begiratu zion.

Azkenean, hirugarrenez ikusi zuenean, ausartu zen eta hurbildu zitzaion elkarriketa bati ekiteko bezainbeste.

Zerbait ezagutu ahala, beldurra galduko diozu. Baina eutsiezu beti behar diren distantziari eta zuhertasunari.

Lehoi errege ona

Bazegoen lehoi bat, haserrekorra ez zena, ezta krudela edo bortitza ere, zuzena eta atsegina baizik, eta izaki ona zenez, erregea izatera heldu zen.

Bere erregealdian animalien batzar orokorra egin zen, elkarri barkamena eskatu eta emateko. Otsoak bakea eman zion bildotsari, panterak gameluari, tigreak oreinari, azeriak erbiari,...

Orduan, erbi herabeak zera esan zuen:

-- Sutsuki irrikatu egin dut egun hau heltzea, indartsuenek ahulenok zuzentasunez hartu gaitzaten.

Eta segituan ahalik eta azkarren ihes egin zuen korrika.

Estatu batek zuzentasunez jarduten duenean, umilak lasai bizi daitezke,... baina gehiegi fidatu gabe.

Lehoia eta asto harroputza

Berriro adiskidetu ziren asto txoriburua eta lehoia, eta ehizara joan ziren. Basahuntz batzuk babesten ziren kobazulo batera heldu ziren, eta lehoia kanpoan geratu zen bitartean, astoa kobazulora sartu zen, ostikoka eta arrantzaka ahuntzak irtenarazteko.

Behin ekintza bukatuta, astoa kobazulotik atera eta lehoiari galdetu egin zion ea bere jarduera bikaina iruditzen ez ote zitzaion, ahuntzak botatzeko hainbeste ausardiarekin borrokatu izanagatik.

-- ¡ Oh bai, ikaragarria – erantzun zuen lehoiak – ni neu beldurtuko nintzen jakin izan ez banu zein zen kontua!

Zeure burua goraipatzen baduzu, jendeak, eta batik bat ezagutzen zaituztenek, barre egingo dizute.

Oilarrak eta eperra

Bi oilar zituen gizon batek etxerako eper bat erosi zuen, eta oilarrak zeuden eskortan sartu zuen, elikatzearren. Baina hauek eraso egiten zioten, eta atzetik ibiltzen zitzaizkion, eta eperrak pentsatzen zuenez hori egiten ziotela beste espezie batekoa izateagatik, umilduta sentitzen zen.

Baina handik egun batzuetara oilarrek elkarri ere eraso egiten ziotela ikusi zuen, eta elkarrengandik aldentzen zirenean odolatan zeudela. Orduan zera esan zion bere buruari:

-- Dagoeneko ez naiz kexatzen oilarrek gaizki hartzen nautelako, ikusi egin baitut elkarri ere bakerik ez diotela ematen

Auzokideak baketan bizi ez diren komunitate batera heltzen bazara, egon ziur zeuri ere ez dizutela bakerik emango.

Antzaratzat hartutako zisnea

Gizon oso aberats batek antzara bat eta zisne bat hazten zituen, baina helburu desberdinekin: bata jateko nahi zuen, bestea abesteko.

Antzara elikatzeko ordua heldu zenean, gaua zen, eta iluntasunak ez zuen bi hegaztiak desberdintzen uzten. Jabeak zisnea harrapatu zuen antzara zelakoan, eta hark hil aurreko kantu ederra bota zuen. Ahotsa entzutean, jabeak ezagutu zuen eta kantuak heriotzatik salbatu zuen.

Norbaiti edota zerbaiti buruzko erabaki bat hartu aurretik, onuragarria edo kaltegarria izanda ere, lehenago haren benetako nortasunaz ziur egon behar gara.



"Inauteriarekin" antzerkia egiten dugu

5 eta 8 urte arteko ikasleekin antzezpena egitea proposatzen dugu.

Antzezpenaren aurretik entzunaldia egin eta animalia batzuen zatiak (hitzak ikasiz edota zati hori dantzatu izanaz) ezagutu beharko dituzte. Taldea antolatu behar da, eta koreografiaren bat aukeratu, maskarak eta jantziak egin, aukeratutako pertsonaiak nortzuek antzeztu hautatu, narratzailea hautatu,... azken finean ikastegiko beste ikasgela batzuetako ikaskideei antzezpenaren bidez helarazi nahi dizkiegun bizipenak zehaztu.

Zalantzarik gabe, antzezpena Camille Saint-Saënsen musika bizitzeko eta beronen ulermena bultzatzeko erarik onena izango da. Hemen 14 zati aurkezten ditugu. Guztiak egiteak luzeegi joko luke, batik bat kontuan hartzen baditugu alde aurretik joratu beharreko musika eta didaktika ezagutzak. Antzeztu beharreko zatiak, beraien testua eta iraupena ikastaldea egin duen musikari buruzko lanari eta haren ezaugarriei egokitu behar zaizkie..

Narrazio batetik abiatuta animalia bakoitza eta abestutako kantuen hitzak aurkezten ditugu, ikasleek buruz ikas ditzaten. Pertsonaia bakoitzaren ahozko aurkezpenaren ostean, CDren musika zatia entzungo da eta ikastaldea adostutako antzezpenak burutuko dira, beti ere musikaren ezaugarriei jarraituta.

Sarrera

Prest al zaudete gure **Animalien Inauteria** ikusteko eta bizitzeko?

Guztiok, handienetik txikienera, geure jantzi onenak jantzi egin ditugu. Guztiok erakutsi nahi dizuegu Camille Saint-Saënsen idatzitako musikarekin primeran pasako duzuela.



Sarrera eta lehoiaren errege-martxa

Zuen ustez, zein izango da eszenatokian agertuko den lehen animalia?

Tronpetena dirudien soinu batek haren etorrera iragartzen digu. Gu guztion aurrean: Tximaluze erregea. Kapa luze bat darama eta noizean behin bere erpe zorrotz eta arriskutsuak erakusten dizkigu.



Disfrazado voy al carnaval,
¡Qué bien lo pasaré!
Soy rey de la selva,
mis dientes os impondrán la ley.

Oiloak eta txitak

Oiloak jaira heldu egin dira. Urduri daude eta artaga kakaraka egiten dute. Haien ostean, klarinetearen soinuarekin, oilategitik oilarra iristen da. Euren eskubideak aldarrikatzeko pankarta bat eramaten dute. Bukaeran oilo bakar bat agertzen da, lotsatuta, eta abesteari ekiten dio:

No pondré más huevos hoy,
si no limpian donde estoy.
Coc, coc, coc...

Los polluelos del corral,
más felices vivirán.
Coc, coc, coc...



Basastoak

Ez dira ez zaldi, ez asto. Asiako animaliak dira, Tibet aldean bizi direnak. Musika entzuten dute, eta honek mendian gora, mendian behera korrika egiteko, trostan ibiltzeko eta azkar lauhazkatzeko agintzen die.

Dortokak

Dortokek ibiltokia zeharkatzen dute. Parisen ikasi duten dantza berri bat erakutsi nahi digute. Dortoka baten erritmoan dantzatutako kankana da. Dantza hain geldoa izango da ezen bertan dauden animaliak, erabat aspertuta, lokartu egingo baitira.

De París viene la danza,
el Can-can no cansa;
las tortugas bailan
lentamente, sin parar.



Elefantea

Pomposo elefantearen ibilera sendoak publikoa esnatu egiten du. Dantzari baten tutu zuri batekin mozorrotu da. Bere bikotekidearekin, **Trompafina** elefante emearekin, **koreografia bat asmatu ere egin du**. Orain aurkeztuko digute.



Feliz estoy con maravilloso disfraz
Del contrabajo, cuatro acordes
me acompañan este lento vals.

Kanguruak

Kanguru talde bat heldu da. Ez digute hitz egiten, ezta abestu egiten ere, soilik kontu handiz jauzika ari dira. Kolore askotako arrain piloa igerian dabilen akuario bat ekartzen digute.



Akuarioa

Akuarioko arrainek itsas hondoko bizitza barea gogoratzen digute. Lasai egiten dute igeri, isiltasun sakonean murgilduta. Soilik jateko gelditu egiten dira musikak uretara eroritako janaren antzeko mugimendu bat iradokitzen dienean.

Cristalinas aguas;
fondos siempre limpios.
Peces de colores
surcan el inmenso mar.



Belarri luzeko pertsonaiak

Badakizue zertaz moxorrotu diren astoak? Bata sendagile moxorrotu da eta gaixoarena egiten duen bestea sendatu egiten du. Injekzio bat jartzen dion bakoitzean ematen du benetan negarrez ari dela.



Baso sakoneko kukua

Kuku batek hegan egin nahi du. Baso sakonean ezkutatu da, inork ikus ez dezan. Ez omen daki inauterietan gaudela...

Ave cantor,
cu-cu.
tu doble son
cu-cu.
inunda el bosque
con dulce canción.
cu-cu

Me acerco a tí,
cu-cu.
te vas de allí.
cu-cu.
Silencio haré
para poderte ver.
cu-cu.



Hegalariak

Hegazti-saldo batek bai nahi izan duela Camile Saint-Saënsen inauteri jaian parte hartu. Oso tamaina eta kolore desberdinetakoak dira. Musika entzun bitartean hegan egiteko gogo bizia daukate.



Piano-joleak

Hortz zuri asko eta beltz batzuk dituen musika tresna bat ezagutzen al duzue? Prest egon Camille Saint-Saënsen inauterian parte hartu nahi izan duten bi piano-joleri ere entzuteko .

Fosilak

Orain inauteri desfile honetako pertsonaia bitxiena agertuko da. Guztien artean zaharrena da. Baita handiena ere. Inork ez du inoiz ikusi. Guk liburu, museo eta filmen bidez ezagutzen dugu. Dinosaurio baten fosila da.

Dinosaurio soy.
Viejo fósil hoy.
Si golpeas fuerte,
yo sueño así.

Dinosaurio soy.
Viejo fósil hoy.
Si golpeas fuerte,
¡me rompo así!.



Zisnea

Gure jai honetako animalia dotoreena da. Askotan entseatzen du nola mugitu urtean zehar luma bat ere mugitzeke. Gaur oso triste dago, ehiztari krudel batzuek bere maitea zauritu dutelako. Musikarekin oso adi bazaudete, zisnearena egiten duen biolontxelo entzungo duzue; pianoak laguntzen dio zisneak uretan sortzen dituen mugimendu eztiak marraztu nahian.



Esta mañana, mi dulce amor
ha sido herida por un cazador.
Nado sin rumbo, sin ilusión.
¿Quién podrá entender mi triste corazón?

Azken dantza

Gogoratzen al dituzue inauteri honetan parte hartu duten animaliak? Lehoia, oiloak eta txitak,... (Gure publikoa saiatuko da pertsonaia guztiak izendatzen, gainera, agertu diren ordenaren arabera. Hauek ateratzen joango dira, agurtuko dute eta ordenaren arabera jarriko dira). Agurtuko gara Camile Saint-Saënsen musikaren bukaerako lauhazka dantzatzuz.



"Inauteria" eta Orff orkestra

Ikasleentzako esperientzia onenetariko bat da entzun duten musika interpretatzea, taldeka abestuz edota joaz. Jarduera bateratuak, Orff tresnak erabiliz, partekatutako asebetetze maila handia eragiten die.

Orff orkestrako kide guztien arteko koordinazioa eraginkorragoa izango da ikastaldeko ikasleak talde txikiagoetan banatzen baditugu (15 ikasleko taldeak gutxi gorabehera) . Irudimenez jokatu beharko da ordutegi eta talde malguak lortzeko, eskolako beste ohiko jarduerekin bateragarriekin izan daitezten. Horrela didaktikaren aldetik asebetegarriak eta emankorrak izango diren esperientziak lortuko ditugu.

Hiru partitura aurkezten ditugu Orff tresnekin jotzeko:

- [Elefantea](#)
- [Sarrera eta lehoiaren errege-martxa](#)
- [Dortokak](#)

Partitura hauek daukaten zailtasun maila dela eta, egokiak dira 7-10 urte arteko ikasleentzat. Musika irakasle bakoitzak behar diren egokitzapenak egin ahal izango ditu, bere ikasleen musika mailarekin bateragarriak izan daitezten.

Buruz erraz ikas daitekeen zati bat aukeratzea gomendagarria da, lehen interpretazioetatik arrakasta kolektibo baten sentsazioa egon dadin. Txikienen kasuan obstinatu batetik abiatu gaitezke, irakasleak pianoan edota txirulan jotako melodia batekin apaindu daitekeena. Nagusiek buruz jo dezakete zati melodiko bat, eta orduan obstinatua izango da harmoniaren euskarria. Ondorengo saioetan ikasitako guztia berrikusiko da, doikuntza arazoak konpontzeko eta orkestraren interpretazioa hobetzeko. Beharrezkoa da zatia behar adina aldiz errepikatzea, bukaerako emaitzarekin gozatu ahal izateko. Hau grabatu daiteke, gerora taldeak entzun dezan.

BALIABIDEAK


Entzuketak eta Abestiak

Beste entzuketan agertzen diren animaliak

Egilea	Lana	Animaliak
■Banchieri, Adriano	<i>Contrappunto bestiale alla mente</i>	Katua, txakurra, kukua
■Chaikovski, Piotr	<i>Zisneen lakua</i>	Zisnea
■Delius, Frederick	<i>On hearing the first cuckoo in spring (1912)</i>	Kukua
■Grofé, Ferde	<i>Arroila Handiko suitea: bidezidorrean</i>	Astoa
■Mancini, Henry	<i>Elefante txikia</i>	Elefantea
■Messiaen, Olivier	<i>Réveil des oiseaux</i> <i>Oiseaux exotiques</i>	Txoriak
■Mozart, Leopoldo	<i>Leran pasieran</i>	Zaldiak, txakurrak..
■Musorgsky, Modest	<i>Erakusketa baten margoak:</i> <i>txiten dantza arrautza-oskoletan..</i>	Txitak
■Respighi, Ottorino	<i>Txoriak: L'usignuolo</i>	Txoriak: urretxindorra
■Rimski-Korsakov, Nikolai	<i>Eulitzarraren hegaldia</i>	Eulitzarra
■Rossini, Gioacchino	<i>La gazza ladra (opera)</i>	Mika
■Rossini, Gioacchino	<i>Rossiniren aretoa (bi ahotseko duetoa)</i>	Katu bi
■Schubert, Franz	<i>Boskotea: Amuarraina</i>	Amuarraina
■Soler, Antoni	<i>Sonata: Oilarra</i>	Oilarra
■Stravinski, Igor	<i>Suzko txoria</i>	Txoria
■Van Eyck, J. Engels	<i>Nachtigaetje</i>	Urretxindorra
■Vangelis	<i>Animalien apokalipsia</i>	
■Vivaldi, Antonio	<i>Il cardelino: txirulerako kontzertua</i>	Karnaba
■Vivaldi, Antonio	<i>Lau urtaroak: udaberria eta udazkena</i>	Txakurrak, zaldiak, erbiak, txoriak...

Grabazioak

Compact-Disc-a



Saint-Saëns

Carnaval des animaux

Argerich - Freire - Kremer Van Keulen - Maisky

Philips - CD 416 841-2

The ESSENTIAL Saint-Saëns

London Sinfonietta - Carles Dutoit

Piano Pascal Rogé y Cristina Ortiz

Decca , 2CD, 4455-2-2

DVD-a

Le Carnaval des animaux

(La musique de **C. Saint-Saëns** expliqué aux enfants)

Pierre Arditti e l'Ensemble Contrastes

LORCOM productions. Harmonia Mundi, distribution. AMI 99 90300 6

Bideoak

Autonomia Erkidego desberdinek eskaintzen dituzten hezkuntza baliabideak eskuratzeko konplexutasunak direla eta, irakasle espezialistek dagokien administrazioaren zerbitzuetan galdetu beharko dute euren lan didaktikoaren euskarri gisa erabiliko dituzten material bideografikoak lortzeko.



► Inauterietako dantzak eskolan

Hemen aurkezten diren dantzak Kataluniako haurrentzat pentsatuta daude. [Autonomia Erkidego](#) bakoitzeko irakasleek euren folklorearekin bat datorren dantza sorta bat bilatu beharko dute

Inauterietako dantzen izara berezi eta bitxia daukate: posible da dantzariak behartzera jantzi batzuk eranztera, jaiaren izaera desinhibitzailea eta eroa areagotu egiten da hainbat ekintzaren bidez: jauzika ibili, airean itzulipurdiak egin, edota konpartsako kide batek aginduta ekintza zehatzak burutu. Inauteriak bezalako jai handietan ikastegian egiten diren dantzek aukera ezin hobea ematen digute talde harremanak indartzeko eta hezkuntza komunitate osoaren partaidetza bultzatzeko.

dantzan.com-en ikastegian dantzatzeko oso egokiak diren euskal dantzen sorta bat aurkitu daiteke.

► Sanba eta inauterial

Sanba inauterietako dantza tipoko bat da.

1.- SANBA dantza azkarra da, indar erritmiko handikoa da. Jatorria mendebaldeko Afrikan dauka, Angola aldean, orain dela hainbat mende. Gazteek SEMBA izeneko dantzatzuten duten maitasunaren eta emankortasunaren jainkoen babesa lortzearren. Dantzariak belarra zeukaten ontzi txiki batzuei eusten zieten balantzaka, eta belar horien usaina arnasten zuten, usain horrekin kitzikatzeko. Sanba Brasilera heldu zen bertako sailetara eramandako esklaboen bidez. Hasieran, eta bere erritu-funtzioaren ondorioz, besoetako mugimenduei eutsi zien.

Egun, sanba Brasilgo eta bertako inauterien ikur unibertsala bihurtu da. otsailaren bost egunetan konpartsetako milaka kidek Rio de Janeiroko kaleak erritmoz eta kolorez betetzen dituzte. Inauteriak izan dira modurik onena sanba Brasil barruan eta kanpoan zabaltzeko. XX. mendearen hasieran banakako dantza honek desfileak girotu zituen. Bikote dantza bilakatzea amerikarren asmakizuna izan zen, eta bertatik Europara iritsi eta segituan herriko bilakatu zen.

2.- Inauterien jatorria bilatzen badugu, erromatarren inperio garaietaraino joan beharko gara, bertan haragiaren jai ospatzen baitzen. Kristautasunak eragindako ohituren aldaketek, berezi Erdi Aroan, Garizumaren hasieraren aurreko egunetan ospatzen ziren jentilen jaiak desagertzea ekarri zuten. XVI. mendean, europar eta afrikar tradizio zaharrak Portugalek kolonizatutako Brasilera heldu ziren.

Inauterien desfileen jatorria XVII. mendean dago. Esklaboak urtean egun batean askatzen zituzten: plazetan eta kaleetan zehar ibiltzen ziren, irinez lohituta, eta elkarri lokatza-eta botata. Egun horretan kolonoak ez ziren etxetik irteten, eta jostatzen ziren jaten, edaten eta ura leihoetatik botatzen. Handik gutxira klase ertaineko zuri batzuek jostagarriago iritzi zioten kalera irteteari eta maskaratuta eta makillatuta beltzekin nahasteari. Jai lizun hauen inguruko esamesak Europara iritsi ziren. Goi mailako aretoetan mozorro-dantzak egiten hasi ziren. Batzuek, Veneziakoek, kasu, mundu osoan ospea lortu zuten.


Historialari batzuek diote 1873 izan zela desfileak lehen aldiz egin zireneko urtea. Brasilen, inauteri jaiak gero eta jendetsuagoak dira. Sanbaren dantza, erritmo ofizial bihurtuta, konpartsen desfilearen osagai antolatzailea da eta alaitasun kolektiboaren ardatza. Tokian tokiko sanba-eskolak ugaritu izanak argi eta garbi erakusten du dantza honen gizarte ondorioen tamaina.

Manuel Castelló. **Los bailes de pareja**. José J. De Olañeta, Edditor. Palma de Mallorca, 1997



Estekak

► Hezkuntza arloko erakundeak



► Haur-bibliografia



► Camille Saint-Saënsen biografia

- http://www.maurice-abravanel.com/saint_saens.htm
- <http://www.epdlp.com/compclasico.php?id=1118>
- http://members.tripod.com/~mundoclasico/cps/SAINT_00096.htm

► Stéphane Mallarméren biografia

- <http://www.artehistoria.com/frames.htm?http://www.artehistoria.com/historia/personajes/7025.htm>
- <http://www.biografiasyvidas.com/biografia/m/mallarme.htm>
- <http://www.geocities.com/zonaliteratura/clasicomallarme.html>

► Claude Debussyren biografia

- <http://www.biografiasyvidas.com/biografia/d/debussy.htm>
- <http://www.escolar.com/biografias/d/debussy.htm>
- <http://www.artehistoria.com/frames.htm?http://www.artehistoria.com/historia/personajes/7027.htm>
- <http://www.paginadigital.com.ar/articulos/biografias/debussy.html>
- <http://www.portalmundos.com/mundomusica/clasicos/debussy.htm>

► "ABAO TXIKiri" buruzko jarduera didaktikoak

- www.abao.org

► "Animalien Inauteriari" buruzko jarduera didaktikoak

http://clic.xtec.net/db/act_ca.jsp?id=1378 Miren Garraldak egindako KLIK jarduera (galegozko itzulpena: Luis Matías López Rivas. Gaztelaniazko itzulpena: Alicia González Noguera).

- <http://ww2.grn.es/atot/> (katalanezko gida didaktikoa dauka, PDF formatuan)
- <http://www2.ac-lyon.fr/etab/ecoles/ec-42/saint-etienne/saint-saens/ssaens/lion/lion1.html>
- <http://www.laco.org/kids/2004concerts/nov04A.htm#game> (ingeleseko musika jokoa)

► Animalia protagonistak

Online partiturak

Web-gune hauetan zati guztien partiturak zein entzungaiak lortu daitezke.



- o <http://www.karadar.com/Default.htm> Atari honetan Camille Saint-Saënsen biografiari eskainitako web-orriak, modu askean jaitsi daitezkeen materialez gain, **Animalien Inauterien** zati batzuen MIDI artxibategiak ere badauzka.

Fosilak eta dinosauroak

Fosilek dagoeneko existitzen ez diren eta historiaurrean bizi izan ziren hainbat izaki bizidun nolakoak ziren jakitea ahalbidetzen digute; fosilek era naturalean iraun dute lurrazalean.

- <http://www.arrakis.es/~balea/FOSIL.htm> Bigarren hezkuntzako ikasleentzako Paleontologia. Liburuak eta berriak
- <http://joancorbacho.eresmas.com/>
- http://usuarios.lycos.es/areafotos/fotos_de_fosiles.htm Fosilen argazkiak
- http://usuarios.lycos.es/areafotos/fotos_de_fosiles.htm Dinosauroei buruzkoa
- <http://www.editorialjuventud.es/84-261-2759-2.htm> Fosilak iraganaz mintzatzen dira. Liburuak.
- <http://www.edu365.com:8801/~vlh1002/coleccion%20fosiles.htm> Irudien bilduma

Basastoak



Basastoak asto basatiak dira, Asiako basamortu eta estepetan bizi direnak, euren gorpuzkerak astoaren eta zaldiaren arteko nahasketa baten itxura dauka. Ez dira inoiz etxekotuak izan, oso herabeak omen direlako.

Larruazala marroi gorrixka da, baina larruazal gris horixkakoak ere badaude. 120 cm. dira luze. Ekido azkarrenak dira basastoak, 70 Km/orduko abiadura ere har dezaketelako. Oso ikusmen ona daukate. Erresistentzia handikoak dira eta bi orduz jarraian 24 Km/orduko abiadurari eutsi diezaioke.

Oso alde lehorretan bizi badira ere, bizirik irauteko ura behar dutenez, inoiz ez dira bertatik gehiegi urruntzen. Talde txikietan bizi dira (8 edo 10 banako), ar baten gidaritzapean. Emeen ernaldia 11 edo 12 hilabetekoa da. Bi urtean behin astakume bat egin dezakete. Ugaltzeko garaia euriena da. Egun, basastoak babestuta daude.

Interneten honako hauei buruzko informazio zehatza lortu daiteke: zaldiak, astoak, afrikar astoak, basastoak edo asiar astoak....

- o <http://perso.wanadoo.es/milantx/asno.htm>
- o <http://www.zoowebplus.com/datos/hemion.asp>

► Inauteria eta mozerroak

- <http://www.educalia.org/externs/car05/s/idees.html?taller=1> Maskarak eta mozerroak egiteko EDUCALIA atariko tailer elkarreragilea.
- <http://www.xtec.es/recursos/clic/cat/act/diversos/act53.htm> **KLIK jarduera. Mislatako (Valentzia) Ausiàs March Eskola Publikoko irakasleek sortua** Haur Hezkuntzarako jarduera sorta , Inauteriei buruzkoa, bertan koloreak, neurriak, orientazioa eta antzeko kontzeptuak landu egiten dira.
- <http://www.fundaciongsr.es/pdfs/carnaval2002.pdf>